
¶ Ley. IIII. Que los que arriendan sus casas y lonjas y se encargan de guardar los fierros y azeros no traten en ellos.

OTro si, ordenaron por fuero y ley, y mandaron que rentero alguno, que tenga casa, y cargo de renteria, y guarda de fierros, y azeros en sus casas, y lonjas, no pueda tener ni usar ningun trato de comprar, ni vender hierros, ni azero alguno; saluo solamente aya de usar de guardar con mucha fidelidad los hierros, y azeros, que en su casa, y lonja los dueños pusierẽ; pues por ello le pagan su rentaje y salario; porque de auer usado los renteros, y lonjeros del trato de comprar, y vender hierros, y azero, por expe-

Olen Sugarria

geitalau libra daukazala, libra bakoxta amasei ontzako izanik; eta Ola batzuetan txikiagoak eta Errenterietan aundiagoak izaten diranez, ori dala-ta eztabaidak sortzen dirala. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, Oletan eta Errenterietan esaniko neurriko pisua izan daitela, ez aundiagorik ez txikiagorik; eta Oletako ta Errenterietako pisua bardiña izan daitela; eta Errenteri ta Ola bakoxtak librako pisuak euki dagizala; seireun marairen zigorpean, onelango pisu ezbarðiña eta aundiagoa ta txikiago aurkitzen dan bakoxtxean; eta diru-zigora, guzurrezko pisua aurkitu jakon Olaren jabeak edo alogeratzailleak edo errenteroak, edozeiñek, ordaindu dagiala, erdia salatariarentzat eta beste erdia Konderriko bideak konpontzeko izanik; eta Bizkai'ko Aldunek edo eurotatik edozeiñek pisuok ikusi egin bear dituela, premiñarik badala agertzen dan bakoxtxean, ziurrak eta zeatzak ipiñerazoz.



IV Legea. Euren etxeak eta atariak alogeratzzen dituenek eta burdiña ta galtzairua gordeteko ardurara dabenek ez dagiela orrelakorik sal-erosten jardun.

Baita: Forutzat eta Legetzat ezarri ta agindu ebela, Errenteriko etxea ta ardura dauan errenterok, bere etxe ta atarietan burdiña ta galtzairua gordeten dituanek, ezin daikela ez burdiñarik, ez galtzairurik erosi ta saldu, ez onango sal-eroskuntzan jardun, bere etxe ta atarietan jabeek izten dituen burdiña ta galtzairua zintzoro-zintzoro jagon baiño; alogera ta saria orretarakoxe ordaintzen dautsoez-eta; errenteroek eta atari-alogeratzailleek burdiña ta galtzairua sal-erosten jardun izan dabenean, ikusien gainera ikusi izan danez, burdin eta galtzairuen jabeek kalte aundia artu izan dabela; eta burdiña ta galtzairua sal-erosten liarduken edozein errentero ta atari-alogeratzaille, ori egiten dauan bakoxtxeko, amar milla marairen zigorpean jausi daitela, erru-ordain ori

Titulo veynte y ocho

riencia se ha visto los dueños de los tales hierros, y azeros auer recibido mucho daño: y qualquier rentero, ò lonjero, que vsare del dicho trato de comprar ò vender hierros, ò azero, por ca-

da vez que lo hiziere, caya & incurra en pena de diez mil maravedis, la qual se reparta la meytad para el acusador, y la otra meytad para los reparos de los caminos.

✿ TITULO VEYNTE Y NVEVE ✿ de las apelaciones.

¶ *Ley. I. Que del alcalde del fuero se apete para el Corregidor ò su teniente.*

¶ *Ley. II. Del teniente general se apete para el Corregidor.*

Primeramente dixerón que auian de fuero, y establecian por ley, que de qualquier sentençia, que fuere dada difinitiva, ò interlocutoria (en caso que aya lugar apelacion) por alcalde del fuero de Vizcaya, ò qualquier dellos, aya lugar apelacion para ante el Corregidor de Vizcaya, ò para ante su teniente general, à do más quisiere el apelante; y que el Corregidor, ò su teniente, ò cada vno dellos conozcan en grado de apelacion conforme à derecho y fuero.

(?)

OTro si dixerón, que auian de fuero, y establecian por ley, que de qualquier sentençia dada por el teniente general de Corregidor afsidifinitiva como interlocutoria (en caso que de derecho aya lugar) en lo ciuil y crimen aya lugar apelacion para ante el Corregidor, el qual como juez superior pueda conocer, y proceder en la causa segun hallare por fuero, y derecho.

(?)

Ley.

Ogeitabederatzigarren Atala

bereganaturik, erdia salata- bidegintzako dala.
riarentzat eta beste erdia



OGEITABEDERATZIGARREN ATALA,

auzitan gora-joteaz.



*I Legea. Foru-
Alkateagandik Korrejido-
reagana edo onen Ordezka-
riagana jo daitekela.*



eenengo esan
eben: Foruz
ebela ta Lege-
tzat ezarten
ebela, Bizkai'
ko Foru-Alkatek edo beste
edozein alkatek emoniko
azkeneko edo bitarteko
epaitik (gora-jotea bidezko
danean) Bizkai'ko Korreji-
doreagana edo onen Ordez-
kari Nagusiarengana jo dai-
tekela, gora-joleak norenga-
na nai eta arexengana; eta
Korrejidoreak edo onen
Ordezkariak edo eurotariko
bakotzak euri dagokien
gora-jote maillan Foruz eta
legez auzia garbitu dagiela.

*II Legea. Ordezkari
Nagusiagandik Korrejido-
rengana jo beite.*

Baita, esan eben:
Foruz ebela ta
Legetzat ezarten
ebela, Korrejidorearen
Ordezkari Nagusiak emoni-
ko edozein Epai dala-ta,
zein azkenekoa zein bitarte-
koa, zein erri-auzia zein
zigor-auzia izan (legez egin
aal izan ezker) Korrejido-
reagana jo daitekela, eta
onek, Goragoko Epaikari
danez, auzia aztertu ta ebat-
zi daikela, Foruz eta legez
bidezko eretxi lekionez.

*III Legea. Korrejidorea-
gandik Aldunengana jo
daitekela, eta Korrejido-
reagar batera edo a baga-
rik epaia iragarri daikeela,
eta areen epaitik Goi-
Auzitegira jo daitekela.*

Baita, esan eben:
Foruz ebela ta
Legetzat ezarten
ebela, Korrejidoreak emoni-

¶ Ley. III. Del Corregidor se apele para Diputados, y como hande pronunciar sentencia con el Corregidor ò sin él, y de su sentencia para Chancilleria.

OTro si dixeron, q̄ auia de fuero, y establecian por ley, que de qualquier sentencia dada, y pronunciada por el Corregidor en causa ciuil, y pecuniaria difinitiuua, ò interlocutoria, de que de derecho aya lugar apelaciõ, se pueda apelar para ante los Diputados de Vizcaya. Y que agora por ellos (si residẽ y estan en la audiencia del Corregidor) reciba la tal apelaciõ y recibida se hagan los autos y processo de apelacion en la dicha audiencia hasta se concluir para en difinitiuua, ò interlocutoria, aunque se hallen ausentes los Diputados: y el pleyto concluso, los Diputados tomen el processo, y con consejo y acuerdo de su letrado assessor que sea letrado conocido y de dentro del Condado (porque el fuero de la tierra y costumbre y estilo de las audiencias dellas ellos lo pue-

den mejor saber y estar en ello mas experimentados) ordenen su sentencia; con la qual y con el processo ayande y r al Corregidor, que diõ, y pronunciõ, y sentenciõ primero, y le requieran, que mande ver el dicho processo, y sentencia dellos: y si le parece que se debe conformar con ellos, y con la dicha su sentencia, que ellos assi traen ordenada, la firme, y pronuncie con ellos: y hecha la tal diligencia si el Corregidor responde, q̄ le entreguen el processo, y la dicha sentencia para que la vea y delibere sino debe assi hazer, ò no; le atien dan los Diputados hasta tres dias siguientes; & si respondiere que no se puede, ò no quiere conformarse con ellos, & con su sentencia (sin atenderle mas) el dicho dia den y pronuncien la sentencia que assi traen de su assessor ordenada, & vala como si fuesse dada juntamente con el dicho Corregidor: y que el Corregidor no tenga el dicho processo & sentencia mas del dicho termino so pena de cinco mil maravedis, la meytad para los Diputados, & parte

Auzitan Gora-joteaz

ko ta iragarririko edozein epaitatik, erri-auzia naiz diru-auzia dala, azkenekoa naiz bitartekoa dala, legez Gora-jo aal izan ezker, Bizkai'ko Aldunengana jo daitekela. Eta Aldunok (Korrejidorearen Auzitegian egotez baldin badagoz) Gora-jote au onar dagiela eta onartuta gero, agiriak eta Gora-jotearen auzibidea eratu dagiezala, Auzitegi aretan auzia amaitu arte, azkeneko edo bitarteko Epaia emonez, Aldunak kanpotik izan arren. Eta auzia amaituz gero, Aldunek auzibidea onar dagiela, eta Letrau aolkularien oneretziz eta beragaz batera eta Letrau au ezaguna ta Konderrri barrukoa dalarik (Lurralde onetako Foruz ta oiturak eta Auzitegiko jokabideak obeto ezagutu daikez eta, ikasiago bere izan daitekez-eta) Epaia emon dagiela; eta Epai au eta auzibide au arturik, Korrejidoreagana joan bear dabela, leenago beronek Auzia aztertu ta Epaia emon eta iragarri ebanez eta euren Auzibidea ta Epaia ikusi eragiteko agindu dagioela; Eta eurekaz bat egiñik, Epaia onartu egin bear

dauala baderitxo, izenpetú dagiala, eurekaz batera Epaia iragarririk: Eta egiteko au burututa gero, Auzibidea ta Epaia emon dakiozala azter dagizan eta onelan egin bear dauan ala ez ikus dagian Korrejidoreak erantzun badagi, Aldunek iru egun itxaron dagiela; ezin daitekela egin edo euren Epaia ez dauala ontzat artzen erantzun badagi, oster, (geiago itxaron bagarik) egun aretan bertan Epaia emon eta iragarri dagiela, euren Aolkulariak atonduta dakarrenez, eta Korrejidoreagaz batera emona izan bailitzan baliozko izan daite- la; Eta Korrejidoreak ez dagizala Auzibidea ta Epaia luzarago euki, bost milla marairen zigorpean, erdia Aldunentzat eta Gora-jo dabementzat eta beste erdia Konderrriko bidegintzarako dala, eta Alderdiaren obaria, gaiñera, euki legiken bako- txean; Aldunek emoniko Epai onetatik Gortean eta Balladolid'ko Goi- Auzitegian dagoan Bizkai' ko Epaikari Nagusiagana jo daitekela, eta onengandik Gorteko Buru ta Oidore diranengana; eta gora- joteko ta gora-jotea aurkez-

Titulo veynte y nueue.

apelante, & la otra meytad para los reparos del Condado, & mas el interesse de la parte, por cada vez que reuuiere: de la qual senten-
cia de Diputados aya lugar apelacion para ante el juez mayor de Vizcaya que resi-
de en la Corte & Chacilleria de Valladolid, & del para ante los Señores Presidente & Oydores de la dicha Corte: & que los plazos & terminos de apelar, & presentar, & seguir la apelaciõ sean los mesmos que disponen las leyes del Reyno: & si alguna de las partes recusaren a los letrados del Condado, que en tal caso los Diputados tomen por assessor a otro letrado de fuera del Condado sin sospecha.

¶ Ley. III. Que de quinze mil marauedis abaxo no aya apelacion para Chacilleria.

OTro si dixeron, que auian de fuero, y establecian por ley, que por quanto los Vizcaynos siempre de su principio acãtuiuieron por fuero que todos sus pleytos ciuiles, &

criminales fueffen fenecidos dentro del Condado (por ser el fuero delios de albedrio, y exorbitante del derecho comun) & los luezes superiores de la audiencia Real en las dichas causas procederian mas conforme al derecho del Reyno, ò comun que de su fuero: & porque ay en Vizcaya muchos pleytos, de los quales casi esta ocupada la dicha audiencia Real, & los Vizcaynos se gastan & fatigan mucho en pleytos que alla salen por apelacion. Por ende, y por euitar los dichos incõuenientes dixeron que porq̃ de diez ò doze años a esta parte se hazian las apelaciones à la dicha Corte y Chancilleria, y a la causa tenian hecha vna ordenança confirmada por su Alteza, la qual queriã auer por fuero y ley y era y es la siguiente. Que ningun pleyto ciuil, ni pecuniario, q̃ sea de cantidad, ò de valor de quinze mil marauedis abaxo (sin las costas) agora sea cantidad, ò mueble, ò sobre tierra rayz, ò sobre otra qualquier demãda, no aya lugar a pelaciõ, ni nulidad, ni simple querella, ni otro remedio alguno

Ogeitabederatzigarren Atala

tu ta jarraitzeko epe ta mugak Erreiñuko Legeek izendatzen dituenak izan daitezala; eta Alderdiren batek Konderriko Letrauei eznaia egingo baleutse, ola-koan, Aldunek Konderritik atekoa dan susma bagako beste Letrau bat Aolkularitzat izendatu dagiela.

IV Legea. Amabost milla maraiz beetiko auzia izan ezkerro, ez dagoala Goi-Auzitegira jotetik.

Baita, esan eben: Bizkaitarrek euren auzi guztiak, zein erri-uzia dala zein zigor-uzia dala, Konderrri barruan garbitzeko eskubidea betidanik eta asieratik Foruz izan dabenez (euren Forua aukeramenezkoa ta guztien legez gaindikoa danez) Errege-Auzitegiko Epaikari Nagusiek auzi oneetan euren Erreiñuko legeen edo guztien legearen arabera geiagotan ebatziko leukeela emengo Foruaren arabera baiño; eta Errege-Auzitegia ia gainez eginda egoteraiño Bizkaia'n auziak eta auziak dagozanez, gora-joteok eta ango ekitaldiok dirala-ta,

Bizkaitarrek eralketa ta neke aundiak izaten dituela. Orregaitik eta okerbideok kentzeko, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Amar edo amabi urtetatik onantz Gortera ta Goi-Auzitegira jotetan dan ezkerro, arazo oni buruz Jaun Aundiak onarturiko agindu bat ebela eta berau Forutzat eta Legetzat ezarri nai dabela eta erabagi au era onetakoa dala: Edozein Erri-uzi ta Diru-uziri buruz, amabost milla maraiz beetikoa izan ezkerro (eralketarik baga), zein dirutan eta ondasun mogikorretan zein lur-ondasunetan zein beste edozein eskaritan gora-jotetik ez beite bidezko izan, ez indargatzerik, ez beste auzibiderik ez Konderritik at etor daiteken beste ebatzbiderik, berton amaitu ta garbitu baiño; eta norbaitek Bizkaia'ko Epaikari Nagusiagana edo Gorteko Buruagana eta Oidoreengana joko baleu, Auzibide ori Bizkaia'ra itzuli eragin dagiela, gora-jolea eralketak ordaintzera gaitzespenez bearturik: eta Aldunek eta Korrejidoreak Gora-jote au kontutan artzekerke, Epaia bete eragin dagiela.

guno de fuera del dicho Con-
dado: salvo que ende sean fe-
necidos, y acabados: y que si
de hecho fuere apelado al Lu-
ez mayor de Vizcaya, ò Pre-
sidente y Oydores, la remitan
para Vizcaya condenando
en costas al apelante: y los Di-
putados, y el Corregidor sin
embargo de la tal apelacion
executen la tal sentencia.

*¶ Ley. V. De la apelacion
en los pleytos de quinze
mil maravedis abaxo y de
la sentencia que en este ca-
so han de dar Corregidor y
Diputados.*

OTro si dixeron, que a-
uia de fuero, y estable-
cian por ley, q̄ en los
dichos pleytos de quinze mil
maravedis abaxo (sin las cos-
tas) vuisse las instancias fe-
guientes. Que de qualquier
sentencia, ò agrauio (de que
de derecho ay a lugar apela-
cion) que hiziere qualquier
alcalde del fuero, pueda el
agrauiado apelar ante el Cor-
regidor, ò su teniente ge-
neral; & que en eleccion su-
ya sea ante qual dellos: & de
la sentencia, que en este gra-
do diere el teniente general,

pueda apelar el agrauado
para ante el Corregidor, &
Diputados juntamente, y
no ante los vnos sin los otros;
& que ende ante el Corre-
gidor & su audiencia se pue-
da hazer la presentacion, &
fenecerse el pleyto hasta con-
cluyr para en difinitiva: &
el pleyto concluso, se en-
tregue el processo al Cor-
regidor para que lo vea y
ordene en el sentencia; &
ordenada, el processo (sin la
dicha sentencia) entregue el
Corregidor a los Diputa-
dos tassandoles la assessoria:
& los Diputados ordenen
su sentencia à consejo de su
assessor, & vengan con ella
al Corregidor, & gela a-
muestren, y el Corregidor
la suya a ellos, & comuni-
cadas entre ellos las dos sen-
tencias (hallandose confor-
mes) den, & pronuncien sen-
tencia todos; & si en las dos
sentencias no ouiere confor-
midad, el Corregidor haga
parecer ante si al tal assessor,
ò letrado de Diputados, y am-
bos, y dos vean, y platiquen
el processo; y si se pudieren
conformar en vna sentencia,
la den y pronuncien: y no se
pudiendo conformar el Cor-
regi-

Auzitan Gora-joteaz

V Legea. Amabost milla maraiz, beetiko auzietan gora-joteaz, eta olakoan Korrejidoreak eta Aldunek emon bear daben epaiaz.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, amabost milla maraiz beetiko auzietan (eralketak bagarik) onango gora-jote era izan daitela: Edozein Foru-Alkatek emon daiken edo egin daiken bidebaga dala-ta, (legez gorajoterik aal badaite), Iraindua izanak Korrejidoreagana edo onen Ordezkari Nagusiarengana jo daikela, norengana jo beraren aukeramenean dalarik; eta Ordezkari Nagusiak emon daiken epaiari buruz Iraindua izanak Korrejido-reagana ta Aldunengana batera jo daikela, eta ez bazuengana bai eta besteengana ez; eta Korrejidorearen aurrean eta beronen Auzitegian auzia asi ta amaitu daitekela, azkenengo erabagia emon arte; eta Auzia amaitu ezkeru, Auzibidea Korrejidoreari emon dakiola Epaiia ikus ta molda dagian; eta

moldatuz gero, Auzibidea (Epairik baga) Korrejidoreak Aldunei emon dagioela, Aolku-saria neurtuz; eta Aldunek euren Aolkularien irizpidez Epaiia moldatu dagiela eta barrero Korrejidoreagana etorririk, erakutsi dagioela, Korrejidoreak bere berea euri erakutsiz, eta Epai biok guztien artean ikusiz gero (erexikideko baldin badira) guztiek batera Epaiia emon eta iragarri dagiela; eta Epaioi buruz erexi bat ez balitz, Korrejidoreak aitaturiko Aolkularia edo Aldunen Letraua erakarrri ta bien artean Auzibidea aztertu dagiela, bakotxak berea azaldurik, eta Epai bat emoteko alkartuko balitzaz, emon eta iragarri dagiela: Korrejidorea ta aitaturiko Aolkularia bat ez baletoz, barriz, alderdi bien pentzutau beste Letrau bat izendatu dagiela, eta izendatu izan dan irugarren onek Auzibidea azter dagiala, bere erexia besteei jakin eragiñez; eta irugarren Aolkulari onek onartuko leuken Epai auxe emon eta iragarri dagiela, irurek izenpetzen dabela, Korrejidoreak eta Aldunen Aolkulariak eta irugarren Letrauak; eta Epai onetatik

Titulo veynte y nueue.

regidor y el tal assessor, nombren vn letrado tercero à costa de ambas las partes litigantes, y el tercero assi nombrado lo vea, y comunique con ellos; y aquella sentencia, con la qual se conformare el tal tercero, se dè, y pronuncie, y firmen todos tres, assi Corregidor como assessor, y tercero letrado, diputado; y de la tal sentencia no aya lugar apelacion, ni nulidad, ni via de simple querrela, ni otro remedio, ni defension alguna; sinò que aquella se execute, como si fuesse passada en cosa juzgada, y por partes consentida.

¶ Ley. VI. Del alcalde del fuero se pueda apelar para el Corregidor: y del para ante Diputados, y como se ha de hazer el proceso ante el Corregidor en ausencia de los Diputados, y como han de sentenciar.

OTro si, si de la tal sentencia, ò agrauio del alcalde del fuero eligiere el agrauiado apelar para ante el Corregidor immediate, que lo pueda hazer, y que el Corregidor la

reciba, y proceda en la causa, segun hallare por fuero y derecho: y que de la tal sentencia del Corregidor aya lugar apelacion para ante Diputados, y que la apelacion se reciba en ausencia de ellos por el mesmo Corregidor, y se proceda ante el hasta concluirse para en definitiva: y concluso, los Diputados tomen su processo con su assessoria tassada, y vayan à su letrado assessor, y traygan del la sentencia ordenada, y gela muestren al Corregidor, y le requieran que se conforme con ellos, y la pronuncie, & firme; y si es conforme a la del Corregidor, lo haga: pero si discrepare, el Corregidor haga parecer ante si al tal letrado assessor (si le parece que lleua emienda la sentencia de diputados) y la comuniquen con el processo: y si se conformaren en vna sentencia, bien; y que la pronuncien el Corregidor, & Diputados: & sinò se conformaren, nombren (segun que en la ley antes de esta) letrado tercero, que con ellos lo comuniquen: y que lo que entre los tres la ma-

Ogeitabederatziren Atala

ez daitela gora-joterik izan, ez indargatzerik, ez beste auzibiderik, ez beste urtenbiderik eta babespiderik; auzia ebatzi ta auzilari guztiek onartua izan balitzan, Epai au bete-eragin daitela.

VI Legea. Foru-alkateagandik Korrejido-reagana jo daitekela, eta onegandik Aldunengana, eta Aldunen auzialdian Korrejidorearen aurrean auzibidea zelan egin eta epaia zelan emon bear dan.

Ba ita: Foru-Alkatearen Epai edo iraiña dala bide, Iraindua izanak bereala Korrejidoreagana joatea autatuko baleu, egin daikela; eta Korrejidoreak onar dagiala, Auzia Foruz eta legeaz azterturik; eta Korrejidorearen Epai orretatik Aldunengana jotea bidezko izan daitela; eta Aldunak an izango ez balira, Gora-jotea Korrejidoreak berak onar dagiala, azkeneko Epai emon arte Auzia bere aurrean azterturik; eta amaituz gero, Aldunek euren Auzibidea eurekatz dabela, Aolkularitzaren ordaiña zeaztuz, euren Letrau Aol-

kulariari joan bekioz, eta onek Epai moldatuz gero, Korrejidoreari erakutsi dagioela, eta eurekaz bat etor daitela eskaturik, iragarri ta izenpetu dagiala; eta Korrejidorearen Epai az bat baletor, egin dagiala; ez baletor, barriz, Korrejido-reak Letrau Aolkularia bere-gana erakarri dagiala (Aldunen Epai zuzenduta agertzen dala baderitxo) eta Auzibideaz batera erakutsi dagiela: eta Epai bat emoteko ondo alkartuko balitzaz, Korrejidoreak eta Aldunek Epai iragarri dagiela; alkar artuko ez balebe, ostera, eurekaz adituko dan irugarren Letrau bat izendatu dagiela (aurreragoko Legearen arabera) ta iruren artean geienek autatu ta erabagiko leukeen Epai emon dagiela, aurreragoko Legeari buruz esan zanez eta ango eraz egin eta sari bera ezarriz: eta leenengo ekiñaldian Ordez-kari Nagusiek Auzia azter-tzen jardun eta arengandik Korrejidoreagana eta onengandik Aldunengana jo ezkerro, Lege orrek dakarrena egin eta bete daitela, erabagi bera arturik, gorago esan danez eta ango eraz egiñez, eta, ori dala-ta, ama-

yor parte acordare, & ordenare, effo fe pronuncie, & segun y de la manera, & con la metma despenfa, que en la ley antes desta. Y que lo mismo contenido en esta ley fe haga, y cumpla, y fe prouea quando en primera instancia el teniente general començare à conocer, y fuere apelado del para el Corregidor, y despues à los Diputados segun y de la manera que dicha es de suso; de forma que en pleyto que no exceda la dicha suma, y quãtia de los quinze mil marauedis (sin costas) y se començare fuera de la audiencia del Corregidor, no pueda auer mas de las dichas tres instancias.

¶ Ley, VII. Que lo mismo se haga en los pleytos de menos quãtia de quinze mil marauedis que se començaren ante el Corregidor.

OTrosi, en los dichos pleytos, y causas que no excedẽ la dicha cantidad de quinze mil marauedis (sin las costas) y se començarẽ ante el Corregidor, que el Corregidor dẽ senten-

cia segun allare por fuero y por derecho; y de la tal sentencia aya lugar apelacion para ante Diputados, los quales Diputados concluso el pleyto en la manera que dicha es, tomen su processo con su assessoria, y ordenen sentencia à consejo de su letrado assessor, con la qual requieran al Corregidor que la dẽ y pronuncie con ellos; y si fuere conforme à la suya, lo haga, y sinò, que se tenga, y guarde la forma, y orden, y solemnidad de suso en las dos leyes antes desta declaradas. Y que assi en este caso como en los otros casos suso declarados en las dos leyes antes desta, al tiempo que los dos letrados se han de juntar con el Corregidor, el Corregidor les tome juramento que bien, y fiel mente, y sin odio, ni parcialidad, y sin dadiua, ni cohecho entenderan en el sentenciar de aquel processo; y la tal sentencia que assi se diere, se mande executar por el Corregidor segun se contiene en las leyes antes de esta.

(?)

Auzitan Gora-joteaz

bost milla maraiz goitiko kopururik ez dan Auzian (eralketarik baga) iru ekiñaldiok baiño geiagorik ezin daitekela izan.

*VII Legea. Korrejidorea-
ren aurrean asi diran ama-
bost milla maraiz beetiko
auzietan jarduera bera
izan daiteela.*

Baita: Amabost milla maraiz goitiko ez diran auzi ta auzigaietan (eralketarik baga), Korrejidorean aurrean asi badadiz, Epaia Korrejido-reak berak emon dagiala, Foruz eta legez egin legike-
nez; eta Epai onetatik Aldu-
nengana jo daitekela, eta Al-
dunok esaniko erara Auzia
garbitu ezkerro, Auzibidea
aztertzeko Aolkularia eka-
rri dagiela, Letrau Aol-
kulari onen bidez Epaia
moldaturik eta Korrejido-
reari eurekaz batera Epaia
emon eta iragarri eragiñik;
eta beregaz bat baletor,
egin dagiala, ez baletor,
ostera, aurreragoko Lege
bietan ezarririko era ta
modua ta jarduera bera era-
bil daitezala. Eta zein kasu
onetan zein aurreragoko
Lege bietan azaltzen diran

aitaturiko kasuetan Letrau
biak Korrejidoreagaz alkar-
tu daitezenean, Auzi aretako
Epaia emokeran, gorrotorik
eta alderdikeririk eta emo-
karirik eta koipekeririk baga
Auzia ondo ta zintzoro eba-
tziko dabela Korrejidoreak,
zin eragiñez, berbea emona-
zo dagioela; eta onelan emo-
niko Epaia Korrejidoreak
bete-eragin dagiala, aurrera-
goko Legeetan erabagi
danez.

*VIII Legea. Iru milla
maraitako ta ortik beerako
auzietan izan bear daben
jardunbideaz eta maillez.*

Baita, esan eben: Iru
milla maraiz goitiko
kopururik eta balio-
rik ez dagoan erri-auzietan,
dirutza aundiagoko Auzie-
tan izan oi dan beste ekiñal-
di izan dala orain arte, eta
gaur bere orrenbeste badala,
au dala-ta, auzilariak nekea
jasanik. Orregaitik, Foruz
ebena Legetzat ezarriz, esan
eben: Agintzen ebela, onan-
txe agindurik, ondasun
mogikorrak, lur-ondasunak
eta abere-ondasunak ebazki-
zun diranean, guztien kopu-
rua edo balioa iru milla
maraiz goitiko ez baldin

Titulo veynte y nueue.

J Ley. VIII. De la orden y grados que ha de auer en los pleytos de tres mil marauedis y dende abaxo.

OTro si dixeron, que auian de fuero, y establecian por ley, que por quanto en los pleytos ciuiles, que no exceden de cantidad, y valor de tres mil marauedis, ha auido hasta aqui, & ay tantas instancias como en los pleytos de mayor quantia, de que son fatigados los litigantes. Por ende dixeron que ordenaban, y ordenaron que en ningun pleyto, que sea de cantidad mueble, rayz, ò semouiente, que en cantidad, y valor no exceda de tres mil marauedis (sin costas) no pueda auer en Vizcaya mas de dos instancias; en las quales dos instancias se aya de tener y tenga la forma y orden siguiente. Que si el pleyto fuere començado ante el alcalde del fuero, de la sentencia, ò agrauio que el tal alcalde hiziere, el agrauiado pueda apelar para ante el Corregidor y Diputados de Vizcaya juntamente, ò para ante el

teniente general, y Diputados de Vizcaya juntamente: y que en eleccion sea de la parte para ante qual dellos quisiere apelar: y si se apelare para ante el Corregidor, y Diputados, el Corregidor reciba la apelacion en presencia, ò ausencia de Diputados, & oya la causa, y se concluya ante el para en definitiva (porque en aquella segunda instancia no han de ser recibidos aprueba saluo sentenciar con el mesmo processo, conforme a la ley del ordenamiento) y que concluso el pleyto, el Corregidor vea el processo, y ordene sentencia, y llame a los Diputados, y les tasse la assessoria, & les mande que traygan su letrado y assessor, y traydo ante el Corregidor, el y el tal letrado comuniquen el processo, y sentencia. Y si se conformaren, bien; y que la den, y pronuncien el Corregidor, y Diputados: y si no se conformaren, el Corregidor y el tal letrado nombren otro letrado del lugar; el qual tercero a costa de ambas partes litigantes venga, y se junte con ellos, y lo comunique: y entre los tres el juyzio, & sentencia

Ogeitabederatzigarren Atala

bada (eralketarik baga) ezin daitekela Bizkaia'n ekinaldi bi besterik izan; eta ekinaldi biotako era ta jarduerak ondoren datorren langoak izan bear dauala ta onango-xea izan daitela: Auzia Foru-Alkatearen aurrean asi baldin bada, Alkate onek emondako Epaitik edo egin-dako irainetik iraindua izanak Bizkai'ko Korrejidoreagana ta Aldunengana batera jo daikela edo Ordez-kari Nagusiagana ta Aldunengana batera, eta biotatik zeinengana gora-joleak berak autatu dagiala; eta Korrejidoreagana ta Aldunengana jotea aukeratu badadi, gora-jote au Korrejidoreak onar dagiala, zein Aldunak bertan izan zein ez izan, eta Auzia azter dagiala, berarenean amaiturik eta azkeneko Epaia emonik (bigarrenko ekinaldi onetan egiztagarririk ez da ekarri bear-eta, Auzibide berberaz baliaturik, Arau-bidezko Legearen arabera Epaia emon baiño), eta Auzia amaituz gero, Korrejidoreak Auzibide guztia ikus dagiala, Epaia moldaturik, eta Aldunei dei egin eta Aolkularien saria zeaztuz gero, areen Letrau ta Aolkularia

ekarteko agindu dagiala, eta Korrejidoreagana etorririk, bien artean Auzibidea ta Epaia aztertu dagiezala. Eta alkar artzen badabe, Korrejidoreak eta Aldunek Epaia emon eta erakutsi dagiela; Korrejidorea ta Letraua bata-besteagaz bat ez baletoz, barriz, leku aretako beste Letrau bat izendatu dagiela, eta onek, alderdi auzilari bien pentzutan etorri eta besteekaz alkaturik, berba egin dagiala, eta iruron arteko geienen ebazbidea onar daitela, Epaia emonez eta iragarriz, eta Epai au bete-eragin daitela, Gora-joterik eta babespiderik eta indargatzerik izan baga. Gora-joleak Korrejidorearen Ordez-kari Nagusiagana ta Aldunengana jotea aukeratu ezkerro, baiña, Ordez-kari onek gora-jotea onar dagiala, zein Aldunak bertan izan zein ez izan, eta Auzia aztertu ta azkeneko Epaia emon dagiala, egiztagarririk ekarri baga, esanda dagoanez. Eta egiteko au amaituz gero, Auzibidea azter dagiala, eta aztertu ezkerro, Aldunei ta Aolkulariari emon eragin dagioela, eurek eta euren Aolkulariak izenpetuta gero, biek edo

tēcia de la mayor parte se dē & pronuncie, y se execute sin remedio de apelacion, ni defension, ni de nulidad, ni de otro remedio alguno. Pero si el apelante escogiere apelar para ante el teniente general de Corregidor & Diputados, el tal teniente reciba la apelacion en presencia ò ausencia de Diputados, & proceda en la causa hasta hazer concluir para en definitiva no dādo lugar a probanças segun esta declarado. Y concluso, vea el processo, y visto lo mande entregar a Diputados con su assessoria mandandoles que la traygan dētro de vn breue termino los dos, ò el vno dellos firmada dellos, & de su assessor: & si se conformaren la suya y la del teniente, pronuncienla: y en discordia, se tenga, y guarde la mesma orden que se declara en la instancia de ante el Corregidor y Diputados: con q̄ para la pronunciar con el teniente general baste el vn Diputado, en tal que firmen los dos con el tal assessor: pero si el pleyto fuere principiado ante Corregidor, de su sētēcia aya lugar apelacion para ante Diputados, y el mesmo Corregidor

la reciba segun de suso esta declarado; y proceda hasta concluir para en definitiva, y el processo concluso se entregue a los Diputados cō la assessoria: los quales ordenen sentencia y a consejo de su letrado assessor; y ordenada, requieran cō ella al Corregidor: el qual, si fuere conforme a la suya que el dio, la pronuncie, y confirme; y si ò fuere conforme, haga llamar al tal letrado assessor, y comunicandolo (si ò viere en los dos concordia) nombrando à otro tercero letrado, se tenga la mesma forma, y orden, que de suso esta declarado en los casos, que el pleyto no sea principiado ante Corregidor. Y que los terminos para apelar & intimar, y presentar, y concluir, y feneçer, sean los mesmos terminos, y plazos, como disponē las leyes del Reyno, y so la pena en ella contenida. Y que en las dichas causas en la tal segunda instancia, q̄ pronuncien por el mesmo processo, sin nuevas probanças conforme a la dicha ley Real: y q̄ el Corregidor y teniente general en las dichas causas compela al escribano de la causa

Auzitan Gora-joteaz

euretarikoren batek egun gitxi barru ekarri dagioela agindurik, eta eurena ta Ordezkariarena bat baletoz, iragarri dagiela; bat ez baletoz, ostera, Korrejidoreari ta Aldunei buruzko ekiñaldian izan dan jarduera bera izan eta erabil daitela, Ordezkari Nagusiagaz batera Epaia iragarteko Aldun bat naiko izanik eta Aolkulariagaz betera biek izenpeturik; Auzia, baiña, Korrejidorearen aurrean asi baldin bada, onek emoniko Epaitik Aldunengana jo daitela eta Korrejidoreak berak onar dagiala, gorago esanda dagoanez, azkeneko Epaia emon arte azterturik, eta amaitutako Auzibidea Aldunei ta Aolkulariari emon dakiezala eta oneek Letrau Aolkulariaren irizpidez Epaia molda dagiela, eta moldatuz gero, berau Korrejidoreari ikusi eragin dagioela, eta berak moldatutakoaz bat datorrela ikus badagi, iragarri ta sendotu dagiala; bat ez datorrela ikus badagi, ostera, Letrau Aolkulariari deitu eragin dagiola eta bata-besteagaz berba egiñik (alkar artzerik ez balitz) eta beste irugarren Letrau bat izendaturik, Auzia Korreji-

dorearen aurrean asi ez dan guztietan erabilliriko ta gorago esaniko era ta jarduera bera gorde daitela. Eta gora-joteko, jakin eragitekoko, aurkeztuteko ta ebazteko epe ta mugak eurak izan daitezala, Erreiñuko Legeek erabagiten daben erara egiñik eta zigor bera ezarririk. Eta bigarren ekiñaldia egiten dan auzietan, beste egiztagarririk baga Errege-legearen arabera Auzibide beraren bidez erabagi dagiela; eta Auzi areetan Korrejidoreak eta Ordezkari Nagusiak alderdientzat bearrezko dan bakotxean Leen-Auzibidea ekiñaldi bakotxerako emon dagian Auziaren Eskribaua beartu dagiela, eta Auzia bigarren ekiñaldian amaitu badadi, dirutza txikikoa izan ezkerro, ondoren izandako agiri guztiekaz Leen-Auzibidea biur dakiela.

IX Legea. Auzipean dagoan gauzearen balioa neurtu egin bear dala, amabost milla marairz goitiko dan jakiteko.

Baita, esan eben: Amabost milla marairen kopurua-

Titulo veynte y nueue.

para que dè el processo original para en cada instancia; y cada vez que a las partes fuere necessario, pues acabandose el pleyto en la segunda instancia, se les ha de boluer su processo original con los autos despues seguidos, y es de poca cantidad.

¶ *Ley. IX. Como se ha de hazer aueriguacion del valor de la cosa litigiosa para ver si excede de los quinze mil marauedis.*

OTro si dixeron, que auian de fuero, y establecian por ley, que por quanto la cantidad de los quinze mil marauedis, de que no se puede apelar fuera del Condado, puede ser no de dinero contado; y es el pleyto sobre heredad rayz, ò otra cosa, cuyo valor comunmente no llega a quinze mil marauedis, ni diez mil marauedis; y podria ser que por no estar aueriguado el precio se otorgaria apelacion, ò se reternia en Valladolid: por ende que ordenaban & ordenaron, que el juez de acá, de quiẽ fuere apelado, ante que otorgue, ò la deniegue

(siendole pedido por la parte apelada) llamadas las partes, tome informacion de tres homes buenos del precio comun de la cosa litigiosa con juramento que hagan, y lo haga assentar en el processo, y assi prouea de respuesta, deferiendo, ò denegando conforme a la dicha ley so pena de seyscientos marauedis la meytta para los pobres del hospital del lugar, la otra meytad para los reparos de los caminos.

¶ *Ley. X. En que casos se puede apelar para Chancilleria en lo criminal, y la orden q̄ se ha de guardar en los casos, que no se puede apelar para Chancilleria.*

OTro si dixeron, que auian de fuero, y establecian por ley, que por quanto la experiencia mostraba que en las causas criminales los Vizcaynos por qualquier pena, por pequeña que fuesse, solian y suelen apelar fuera del Cōdado, y seguir las apelaciones fasta el fin; por do redundaba à los Vizcaynos costa y fatiga. Por ende q̄ ordenaban, y orde-

Ogeitabederatzigarren Atala

ren auzia danean, Konderritik kanpora ezin daitekela jo, eta dirutza ori txanpone-takoa izan ez eta Auzitan dagoan lur-ondasuna edo beste zerbait amabost milla maraitara edo amar millata-ra an-da-emen ez eltzea izan leitekela; eta balioa neurtu ta zeaztu baga dagoalako, Auzitan Gora-jotea onartu edo Balladolid'en luzatu egi-tea jazo daiteke. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezar-riz, agintzen ebela, onantxe agindurik, Gora-jotea eska-tu dakioken emengo Epai-kariak, Gora-jote au onartu edo ukatu baiño leenago (Gora-jotea jasan bear dauan alderdiak eskatuz gero), alderdiei dei egiñik, Auzipean dagoan gauzearen balio arrunta zenbatetakoa dan jakin dagiala, iru Gizon zintzorengandik, zin egiña-zoz gero, argibideak jasorik, eta Auzibidean ezarri eragin dagiala, eta erantzuna onantxe emon dagiala, aita-turiko Legearen arabera eskubidea emonez edo ukatuz, seireun marairen zigor-pean, erdia leku aretako gai-xoetxeko beartsuentzat eta beste erdia bidegintzarako dala.

X Legea. Zigor-auzia izan ezkerro, Goi-Auzitegira zein kasutan jo daiteken, eta Goi-Auzitegira jo ezin daiteken kasuetan izan bear dan jardueraz.

Baita, esan eben: Iku-sien gaiñera ikusi izan dala, Bizkaitarrek Zigor-auzietan edozein zigor dala-ta, naiz-eta txikia izan, Auzitan Konderritik kanpora jo izan dabela, eta orain bere onantxe egin oi dabela, eta Gora-joteok azkeneraiño eroaten dituela, jokaera onek Bizkaitarren-tzat eralketak eta nekeak ekarriz. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, Bizkai'ko Korre-jidoreak edo onen Ordezka-ri Nagusiak emoniko Epai-a izan ezkerro (erio-zigorrik edo odola ixurtekorik edo gorputz-zatiren ebaterik edo astinketarik edo lotsabidez-korik edo beste gorputz-zigorrik edo izen txarrekorik edo Konderritik at urte erdi-rako erbesteratu bearrik edo Konderrri barruan urtebete-rakorik edo ondasunen bete-eragipenik edo iru milla

denarõ que en ninguna causa criminal, en q̄ por el Corregidor de Vizcaya, ò su teniente fuere dada sentencia (en q̄ no interuenga pena de muerte, ni de efusion de sangre, ni de mutilacion de miẽbro, ni de açotes, ò de verguẽça, ò otra alguna corporal, ò de infamia, ò destierro de medio año fuera del Condado, ò devn año dẽtro en el, ò de confiscacion de bienes, ò condenacion de pena pecuniaria de tres mil maravedis arriba) no aya lugar apelacion para fuera de Vizcaya, ni de nulidad, ni de simple querrela, ni defension, ni otro remedio alguno para ante el Presidẽte & Oydores, ni Luez mayor de Vizcaya, que en la dicha Corte residen; ni los juezes de acà la otorguen; antes en las dichas causas se guarde y tenga en el apelar & sentenciar la forma & orden seguiete. Que de la tal sentencia, que el teniente general diere, la parte que se sentiere agraviada, pueda apelar para ante el Corregidor, & Diputados jũtamẽte, y que el Corregidor reciba la tal apelacion en ausencia, ò presençia de Diputados; &

recibida, proceda en la causa por si sin Diputados fasta cõcluyr el pleyto hasta la sentencia difinitiva assi para la captura como para la soltura como para recibir aprueba; & concluso para en difinitiva, el Corregidor tome el processo, y ordene su sentencia, y entregue el processo con assessoria à los Diputados; los quales trayan al Corregidor su letrado assessor para que comuniquen con el la sentencia que ellos con el Corregidor han de dar & pronunciar: y si ouiere entre ellos concordia, la pronuncie firmandola todos: y en discordia del Corregidor y el tal assessor letrado, los dos Corregidor y letrado elijan & nombren letrado tercero del lugar a costa de ambas las partes; & discurrida por los tres y examinada la causa, los votos de la mayor parte se prefieran entre los tres, y la sentencia se dè y pronuncie, conforme al consejo y sentencia de la mayor parte: con que el tercero aya de sentenciar & firmar conforme en las otras causas & pleytos de quinze mil maravedis abaxo: y que antes que entrẽ

Auzitan Gora-jateaz

marai z goitiko diru-zigorrik ezarri ez baldin bada) edozein Zigor-auzitan, Gortean dagozan Bizkai'ko Epaikari Nagusiagana edo Auzitegi-Buru eta Oidoreengana jotarik ez daitela izan, ez indargatzerik, ez edozein auzialdi egiterik, ez babespiderik edo beste urtenbiderik; eta emengo Epaikariek ez dagiela onangorik onar; aitaturiko Zigor-auziotan Gora-joteko ta Epaia emoteko urrengoko era ta jokiera au bearrezko izan daitela: Ordezkarri Nagusiak emoniko epaitik, iraindua izan dan alderdiak Korrejidoreagana ta Aldunengana batera jo daikela; eta Korrejidoreak Gora-jote au onar dagiala, zein Aldunak bertan ez izan, zein bertan izan; eta onartu eta Auzia Aldunik baga azter dagiala, Auzia amaitu ta azkeneko Epaia emon arte, zein atxillotzeko zein jarein egiteko zein egiztatzeko; amaitu ta Azken Epaia emonda gero, Korrejidoreak Auzibidea artu ta bere Epaia molda dagiala, Auzibidea Aldunei ta oneen Aolkulariari emonik; Aldunok euren Aolkularia Korrejidoreari ekar dagioela, eurek eta Korrejidoreak emon eta ira-

garri bear daben Epaia eurekaz batera ikus dagian; eta bat etor badaitez, iragarri dagiela, guztiek izenpeturik; Korrejidorea ta Letrau Aolkularia bat ez badatoz, barriz, Korrejidoreak eta Letrauak, biek, leku aretako beste irugarren Letrau bat izendatu ta autatu dagiela, alderdi bien kontura; eta iruron artean Auzia ikusi ta azterturik, iruron arteko geienen autarkiek ebatzi dagiela, eta geiengoaren aolku ta erabagiaren arabera Epaia emon eta iragarri daitela, amabost milla maraiz beetiko Auzi ta Auzibideetan egin oi danez, irugarrenak Epaia emon eta izenpetu ezkeri; eta Epai au adierazo baiño leenago, Korrejidoreak Aldunen irugarren Letrau oni zin eragin eta legezko eginbearra onartu eragin dagiola, amabost milla maraiz beetiko Auzi ta Auzibideei buruz diarduten Legeetan erabagiten danez; eta emongo leuken Epaia sendo izan beite; eta bigarrenengo ekiñaldi onetan Zigor-auziez diarduten Foru onetako Legeek ezarten dituen epe ta mugetan eta eran egin daitela egiztapena, esanda dagoanez. Auzi au

Titulo veynte y nueue.

a comunicar la tal sentencia, el Corregidor reciba el juramento & solemnidad del tal letrado de Diputados, & tercero, segun que esta declarado en las dichas leyes, que hablan & disponen de los pleytos & causas de quinze mil maravedis abaxo: y la tal sentencia que dieren, quede firme; y que en la tal segunda instancia se proceda à prueba, & por los terminos y plazos y de la forma que en las leyes deste fuero, que hablan en las causas criminales, està declarado. Pero si la dicha causa fuer principiada ante el Corregidor, aya lugar apelacion para ante Diputados, juntamente con el Corregidor, y el Corregidor reciba la apelacion, & proceda en la causa ò en presencia, ò ausencia de Diputados, segun que està proueydo en el caso que se apela de su teniente general falta la sentencia definitiva; eceto que en la soltura ò captura del acusado los Diputados, & su letrado, & assessor entiendan & conozcan juntamente con el Corregidor: y si entre el letrado assessor dellos y el Corregi-

dor ouiere concordia, aquello se prouea; & in discordia se guarde la forma de sufo declarada, y lo mismo para la sentencia definitiva. Y por que acaeçe que los Corregidores, ò su teniente general en las dichas causas, en las sentencias, que dan sobre y en razon del destierro, pronuncian, y declaran que el reo sea desterrado fuera del Condado por medio año de tiempo, y dentro del Condado, de su pueblo vn año de tiempo exprimiendo clausula de mas ò menos, quanto la voluntad de los tales juezes fuere: lo qual es, ò puede ser en perjuizio, ò en fraude de la dicha ley para perturbar la jurisdiccion de los dichos Diputados; que en tal caso el Corregidor, ò su teniente no pueda acrecentar el tal año, ò medio año, ò tiempo de destierro. Y que sin embargo de la dicha clausula los Diputados puedan conocer con el Corregidor, ò su teniente general, segun està declarado.

(?)

Ley.

Ogeitabederatzigarren Atala

Korrejidorearen aurrean asi badadi, baiña, Aldunengana ta Korrejidoreagana batera jo daitela, eta Korrejidoreak Gora-jote au onar dagiala, Auzia azterturik, naiz Aldunak bertan izan naiz ez izan, Azken Epaia emon arte, aren Ordezkari Nagusiagandik, Gora-joten danean egin oi dan modura; salatua izanaren atxillotze edo jarein egiteari buruz, alan bere, Aldunek eta onen Letraudan Aolkulariak Korrejidoreagaz batera aztertu ta ebatzi dagiela; eta Letrauta Aolkularia ta Korrejidoreare bat baletoz, axe erabagi daitela; ez baletoz, ostera, gorago esan dan erara egin daitela, eta Azken Epaia emon bere bai. Eta esaniko Auzi ta Epaietan, jazo oi danez, Korrejidoreak edo onen Ordezkariak erbesteratze-zigorra emokeran, Konderritik kanpora urte erdirako eta Konderribarruan urtebeterako, geiagoko edo gitxiagoko ataltxobat Epaietara naierara ezarritik, Epaia iragarten eta azaltzen daben ezkerre, eta au aitaturiko Legearen kaltetan eta Aldunen eskumendean nekegarri iruzurrez egin oi daben edo egin dai-

keen ezkerre, olakoan, Korrejidoreak eta onen Ordezkariak onango urtea edo urte erdia edo erbesteraldia ezin daikela geitu. Eta ataltxo au gorabeera, Aldunek Korrejidoreagaz edo onen Ordezkari Nagusiagaz batera epaitu daikeela, azalduta dagoanez.



XI Legea. Azkeneko epaia emon aurretik, Aldunek zelan erabagi daikelen.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Gora-jo dalako edo indarbakotzat etsi edo beste urtenbideren bat artu dalako, Bizkai'ko Aldunei itzuli jakezan Auzi guztietan, Azkeneko Epaia emon baiño leenago alderdiren batek dongakeriren edo beste irainen atzeratzea edo barrizatzea eskatuko baleu, Aldunek ori egin daikeela; erabagi au artu aurretik, baiña, Korrejidoreagaz alkartu daitetzala eta Azken Epaia emon gorde bear dan era ta jarduera ta modua gorde daitela, azalduta ta esanda dagoanez.

*¶ Ley. XI. En q̄ manera los Diputados pueden pro-
ueer antes de la difinitiva.*

OTro si dixeron, q̄ auia de fuero, y estableciã por ley, q̄ en todas las causas, que asì estuieren de bueltas por apelaciõ, ò nulidad, ò por otro remedio alguno, ante los Diputados de Viz

caya, & antes de la difinitiva se pidiere por alguna de las partes inhibicion, ò reformation de atentado, ò de otro agrauio; que los Diputados lo puedan proueer: pero en el tal proueer requieran primero al Corregidor, y se tenga la forma, & orden, & manera, que està declarado, & dado para en el sentenciar en difinitiva.

❁ TITVLO TREYN TA DE COMO ❁
si algun concejo, & villa de Vizcaya
prendare à algun Vizcay-
no, han de recudir
en su fabor.

¶ Ley. I. Como los Vizcaynos han de favorecer contra las prendas que les hazen las villas.



PRimeramente dixeron que auian de fuero, y establecian por ley, que por quãto los concejos de las villas deste Condado poderofamẽte hazen prendas, y talas, y otras muchas sin razones à los Vizcaynos, & moradores de la tierra llana de hecho, & contra derecho, por do re-

ciben los Vizcaynos mucho daño, & injuria, y ofensa. Por ende dixeron que ordenaban y ordenaron que si alguna ò algunas villas del dicho Condado algun leuuntamiento, ò assonada hizieren contra algun Vizcayno vezino de la tierra llana haziẽdo algunas prẽdas, ò prisiones, ò otras sin razones, y el tal injuriado echare el apellido de Vizcaya; que todos los vezinos, y moradores de la tierra llana seã tenidos de tomar la voz del tal injuriado, dañado, ò prẽdado, y de le hazer emen-

Ogeitamargarren Atala



OGEITAMARGARREN ATALA, BIZKAI' ko Udalen edo Uriren batek bizkaitarren bat atxillotuko baleu, aren alde joan egin bear dabela.



I Legea. Uriek egiñiko atxillotzeen aurka bizkaitarrek lagundu egin bear dabela.

bizkaitar eta bizilagunen bati biurrikeriarik eta matxinadarik egingo baleutsoe, Atxillotzeak eta presondegiratzeak eta onango beste bidebagak egiñik, onan iraindua izan danak deiadar egingo baleu, Lurralde Lauko Auzokide ta bizilagun guztiak kaltea arturik edo atxilloturik dagoan irainduaren alde urtetera eta Uri arek egindako okerra zuzentzera bearturik dagozala; eta onelango deiadarra legikena errudun dala eta Urietakoeck bidez diarduela agertuko balitz, Bizkai'koek eurenganatu dituen eralgibearrak, kalte eta galera guztiak ordaindu dagizala, baita aitaturiko Uriak egiñiko eralgibearrak bere.



eenengo esan eben: Konderrri onetako Urietako Udalen baiturak eta iñausketak eta beste bidebaga asko Lurralde Lauko bizkaitarrei ta bizilagunei legearen aurka egitez eta indarrez egiten dautseezala, ori dala-ta, Bizkaitarrek kalte eta irain eta min aundia arturik. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarritz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, Konderrriko Uriren batek edo batzuek Lurralde Lauko



OGEITAMAİKAGARREN ATALA, Zelan eta non eta zein menditan eizan egin daikkeen.



I Legea. Bizkaitarrek, eurek ataraten daben eizeari jarraitu daikeoela, besteren lurretan eta barrutietan sartu arren.



eenengo esan eben: Bizkaitarrak basurde ta artz eta beste eize-

Titulo treynta.

dar lo que afsi le fuere hecho por la tal villa; y si fuere hallado el tal que afsi hechare apellido que fuere el culpante, y los de la dicha villa ouie

ron justa causa; que pague todas las costas, daños, y menoscabos, que los de Vizcaya recibieren, y mas las costas que la tal villa hiziere.

❁ TITVLO TREYNTA Y VNO DE ❁ como, y donde, y en que manera han de correr monte.

¶ Ley. I. Que los Vizcaynos puedan seguir la montería que leuantaren, aunque entren en otros terminos y jurisdicciones.




OTro si dixeron, que auian de fuero, y establecian por ley, que si alguno cerrare ò hiziere alguna llosa de pã, y sembradura en sierra, que sea vsa, y exido comun, y algunos ganados le hizieren daño por ser los exidos en alto y montaña

Ogeitamalaugarren Atala

euki dagizan; eta orrelako argibidea izan ezkerro, Abereen jabeak ez dagizala atara eginbearrekoa egin baga, ori egin dagian bakotxeko eun marairen zigorpean soloaren jabearentzat.

III Legea. Zigorraren eta kaltearen ordaiña eskuratzeko jabeek euren soloak zelan esitu bear dituen.

Baita, esan eben: Aitaturiko soloen jabeek, jazo oi danez, abereek euren soloetan egindako kalteak diralata, Abereen jabeak egiten dituela kalteon errudun; eta Abereen jabeek, ostera soloak txarto esituta daukezalako datorkiela kalte ori salatzen dabela, eta onelan eztabaidak sortzen dirala. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela onantxe agindurik, Abereen jabeak soloaren jabeari Soloa esiz inguratu dagiala eskatzen badautso, olakoan, Soloaren jabea Soloa esiz inguratzera beartuta dagoala, iru Gizon zintzok ikusi ta aztertuta gero, bakotxak berea autaturik eta irugarrena autaturiko biek izendatzen dabela. Eta iru

Gizonok aztertuz gero, esitu ez badagi, Abereen jabea ez daitela zigorgarri izan, Abereak egindako kaltea ordaintzera beartu baiño. Eta eskabidea egin eta kaltearen ordaiña emonda, esitu ez daualako, barrero kaltea etor badakio, azalduta dagoanez, Abereen jabea ez daitela ordaiña emotera beartu.

IV Legea. Auzoarena dan mendialdean erein ezkerro, ereillearena izan daitela arriskua, kaltea jakiñaren gainean egin ezik.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, norbaitek mendialdean usa edo auzo-lurra dan lekua garitarako edo beste ereite batetarako esituko baleu, eta, auzo-lur ori goialdean eta mendian dagoalako, Abereen batzuk kalte egin, onan erein dauanak, ez-ustez etor dakioken kaltearen arriskua berak eroan dagiala; eta Abereen jabea ez daitela ezertariko kalterik eta zigorrik ordaintzera beartu, norbaitek bere Abereak jakiñaren gainean ara eroan dituala jakin ezik;

taña & comunes; que el tal que así sembrare, se pare a su riesgo y ventura: y ningún dueño de ganado le sea tenido de pagar daño alguno ni pena alguna eceto si se averiguare que alguno le metió el tal ganado a sabiendas: ca en tal caso sea obligado à las dichas penas & daños: y si la tal llosa hiziere en exido, no pueda cerrar con valladar, ni pared salvo con seto: & cogido el pan lo dexé abierto en tres partes de portillos para que los ganados entren y pazcan libremente hasta que otra vez siembren.

¶ Ley. V. Que no se trayga ganado de fuera para reuender, y que esto no se entienda con los carniceros publicos.

OTro si dixeron, que auian de fuero, y establecian por ley, que por quanto por los ganados que vienen à Vizcaya de buéyes, y vacas de Asturias, y de otras partes, de mal de pulmon recreçen muchos daños en los ganados de la tierra, y en los montes, & xaras, & pastos de la tier-

ra. Por ende que ordenaban, y ordenaron, que ningún Vizcayno de villas, y tierra llana sea osado de traer à Vizcaya ganado alguno de fuera para lo vender, y engordar, & reuender, salvo para su casa para labrança, & prouision della. Y si acaeciére que algún extranjero lo truxere para vender, ningún Vizcayno de tierra llana, & villas sea osado de lo comprar para lo reuender, salvo para prouision de su casa: so pena que el que lo contrario hiziere, pierda el tal ganado que truxere, ó comprare; y que sea adjudicado, la tercia parte para los reparos de caminos publicos de aquella ante Iglesia, do fuere tomado el tal ganado, & la otra tercia parte para el juez que lo executare, & la otra tercia parte que sea para el acusador que lo acusare: con que qualquier carnicero publico del Condado sea libre para lo poder traer, y comprar, y traer en los dichos pastos à engordar para que lo pueda vender el mesmo, y en su tabla de carniceria sin lo poder véder à carnicero ni otro


Zigorrei ta Kaltei buruz

onan izan ezkerro, bada, aita-turiko zigorren eta kalteen errudun izan beite; eta esitu ori auzo-lurrean egin badau, ezin daikela lubanez edo arresiz inguratu, esiz baiño, eta garia batu ezkerro, zabalik itxi dagiala iru lekutan atakak egiñik, Abereak aukeran sartu ta jan dagien barrero erein arte.

V Legea. Erbestetik ez daitela abererik barrero saltzeko ekarri, eta erri-arakini ez dagokiela.

Baita, esan eben: Asturias'dik eta beste leku batzuetatik birikietako gaixoz Bizkai'ra datozen idi eta beiek lurraldeko mendi ta txara ta larretan dagozan Abereei kalte aundia dakartseela. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, Urietako edo Lurralde Lauko Bizkaitarrik ez daitela saltzeko edo loditu ta birsaltzeko kanpoko Abererik Bizkai'ra ekarten ausartu, bere etxerako, lugintzarako ta bere bearrizanetarako izan ezik. Eta erbestekoren batek saltzeko ekarri dauala jazo badadi, Lurralde Lau-

ko ta Urietako Bizkaitarrik ez daitela saltzeko erosten ausartu, bere etxeko bearrizanetarako baiño: zigor onenpean, besterik egiten dauanak ekarri edo erosi dauan Aberea gal dagiala, irutatik bat Aberea artu dan Elizateko erri-bideak konpontzeko, beste zatia bete-eragipena egin dauan salatariarentzat eta irugarrena salatu dauan salatariarentzat dala: Konderriko edozein arakin, ostera, zein erosteko zein larretara ekarri eta loditu aal izateko bere eskuko izan daitela, gero berak bere Aragitegian saldu dagian, baiña Konderrian beste Arakiñi ez beste iñori bei edo idi bizirik eta osorik ezin daikela saldu, ezta erbestean bere, besterik egiten dauan bakotzeko bost milla marairen zigorpean, esaniko erara banantzeko.



Titulo treynta y quatro

alguno en gruesso, y vaca, y buey entero en el Condado, ni fuera del, fopena de cinco mil marauedis por cada vez que lo contrario hiziere repartidos en la dicha forma.

¶ Ley. VI. Que ninguno tome de los montes bueyes ni bestias de trabajo sin licencia de sus dueños, y como se ha de proceder contra los que lo hizieren.

OTro si dixeron, que auian de fuero, y establecian por ley, que por quanto muchos se atreuen ofadamente en Vizcaya à llevar bueyes agenos, ò mulas, ò rocines, ò otras bestias de carga de los montes y pastos por su propria autoridad, sin licencia de su dueño, y esto no con intencion de hurtar, saluo de labrar con ellos sus labores; & à lasvezes se pierden los tales bueyes, & bestias, & alas vezes no. Y lo que peor es por llevar dos ò tres bueyes, ò bestias en la dicha forma, lleuan muchos mas (con que no trabajan) ò para en compañia de los que quiere llevar, ò porque los siguen detras

los tales bueyes y bestias que asì lleuan; y acaee que se pierden y enagenan: y porque allende de ser esto contra derecho, es en gran perjuizio de la tierra, & daño de los dueños de los tales ganados, y por lo euitar, y tambien los pleytos y debates q̄ sobre ello acaecen: dixeron que ordenaban, y ordenaron, que ninguno fuesse ofado de llevar ni tomar de los tales montes & pastos, ni de otra parte por su autoridad sin licencia de su dueño bueyes, y semejantes bestias de trabajo agenos, ni de los junzir ni trabajar con ellos fopena de trecientos marauedis por cada buey, y por cada mula, ò rozin, ò bestia que asì lleuaren, y lo truxeren con carga, ò en camino, ò los junziere por cada vez, para el dueño del tal buey, ò ganado: y allende de la dicha pena sea obligado à pagar con el doblo el valor y precio al tal dueño de qualquier buey, ò ganado, ò bestia de los que asì fueren llevados y se perdiere; y en seguite por el otro ganado que siguiendo tras el ganado que asì lleuan, se ausentare y

Ogeitamalaugarren Atala

VI Legea. Iñork ez dagiala menditik idirik eta lanabererik jabearen baietzik baga eroan, eta onangorik egiten dabenen aurka zelan jardun bear dan.

Baita, esan eben: Bizkai'ko mendi eta larretatik euren eskuz eta jabearen baietzik baga idi ta mando ta zamari ta beste lan-abereak eroaten ausarten dirala, ez lapurtzeko asmoz euren solo-lanak egiteko baiño; eta batzuetan orrelako idi ta abereak galdu egiten dirala, eta beste batzuetan, ez. Eta, okerrago dana, idi ta abere bi edo iru onelan eroateko beste asko geiago bere eroaten dituela (lanik eragin baga), naiz eroan gura dituannei lagun egiteko naiz idi ta abereok arei atzetik jarraitu dagioen; eta onangoak, jazo oi danez, galdu edo iñorendu egiten dirala; Eta au Legearen aurkakoa izateaz gaiñera, erriarentzat kaltegarri bere kaltegarri dala eta abereon jabeentzat galbide, eta orrelako kalteak kentzeko eta ortik sortzen diran eztabaidak zokoratzeko, Foruz ebena Legetzat ezarritz, esan eben: agintzen

ebela, onantxe agindurik, iñor ez daitela mendi ta larretatik bere eskuz eta jabearen baietzik baga idirik edo beste lan-abererik eroaten ausartu, ezta buztartu ta lan eragiten bere, onelan eroan edo bidean zamatua ekarri edo buztarria ezarri dautson bakotzeko irureun marairen zigorpean aitaturiko idi edo aberearen jabearentzat: eta onan eroan dan idirik edo abererik gal bale-di, aitaturiko zigorraz gain, idi edo aberearen jabeari salneurriaren bi alakoa ordaintzera beartu daitela; baita eroan dituan abereen atzetzik joan zana aldendu eta galdu baldin bada bere, onelan eroan zituana ziur jakin ezkerro; Eta egiztagarririk ez balitz, salaturiko idirik ez abererik berak ez ebala eroan ez buztartu, ezta bere aginduz beste iñork bere, Errudunak bere Zin-elizan zin egin bear dauala, urtebete ta egun baten buruan ori eskatu ezkerro, eta geroago ez; Eta ostutzeko asmoz eta gogoz eroan izan baleuz, lapur-zigorra egotzi dakiola.



perdiere constando de como los lleuò: y en defeto de probança el reo sea tenuto de jurar en su Iglesia juradera, que el ni otro por su mandado no lleuò, ni junziò, ni cargò tales bueyes ni bestias que le fueron demandados, si dentro de año y dia sobre ello fuere cõuenido y no despues: ca si los lleuò con intencion, ò proposito de furtarlos, aya la pena del ladron.

¶ Ley. VII. Como se han de prender los puercos ajenos que alguno tiene à cebar, si salen de su amojonado.

OTro si dixeron, que auian de fuero, y establecian por ley, que por quanto algun Vizcayno que tiene algun monte, ò termino mojonado, do ay grano y vellota, acaeçe que trae de fuera parte puercos para engordar en aquel su mojonado por precio que le dan los dueños de los tales puercos; y afsi traydos alas vezes los tales puercos se passan del tal mojonado del que los trae à otros mojonados, y terminos de

otros; y los dueños de los tales terminos, do passan y los hallan, los toman, y en corralan, y no los quieren boluer ni restituyr à aquel que los tiene à engordar, aũque les quiera pagar la pena, ò el daño, deziendo que no son dueños de los tales puercos; en que el tal dueño y señor de lo mojonado, ò monte recibia agrauio, y aun sobre ello auia debates. Por ende por los euitar dixeron que ordenaban y ordenaron que qualquiera que afsi hallando los tales puercos en su mojonado & monte, donde ay vellota, ò en alguna heredad cerrada; que requeriendo el tal que los tiene à engordar que gelos de y torne, sea tenuto de gelos boluer, & dar queriendole pagar la pena, ò calumnia, en que ayan los tales puercos caydo, que es la siguiente (es a saber) dos marauedis de cada puercos, que hallare en su mojonado, do viere grano, ò bellota por cada vez de dia; & de noche quatro marauedis, aunque el dueño principal de los puercos no los pida; y esto dandole prenda el tal que los trae

N₃ à en-

Zigorrei ta Kaltei buruz

VII Legea. Norbaitek loditzen daukazan txarriak euren mugarritutik urten ezkeru, zelan baitu bear diran.

Baita, esan eben: Garaua ta ezkurra dagoan mugarrituriko mendiren edo lurzatiren bat daukan Bizkaitarrek, jazo oi danez, erbestetik txarriak ekarten dituala mugarritu aretan loditzeko, txarrioren jabeek ordaiña emoten dautsoela; eta onan ekarritako txarriak askotan euren mugarritutik urten eta beste batzuen lur eta sail mugarritueta joaten dirala; eta txarriak joan diran lurraren jabeak, andik igarota an aurkitu ezkeru, artu ta abeletxeratu egiten dituala eta loditzeko ekarri dituanari ez dautsala biurtu ta itzuli nai izaten, arturiko nekearen eta kaltearen ordaiña emoteko prest egon arren bere, txarrioren jabe ez dirala esanez, eta, au dala-ta, lur mugarrituaren jabe ta jaunak bidebagea izaten dauala, onelan eztabaidak sorturik. Orregaitik, eztabaidok kentzeko, Foruz ebena Legetzat

ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, ezkurra dagoan bere mendi mugarrituan edo solo esiturren baten orrelako txarririk aurkitzen dauan edonork, loditzeko dukazala ekarleak adierazo badagio, biurtu ta itzuli ta emon egin bear dautsazala, txarriok euren ganatu daben zigorra edo iraiña (au da) garaua edo ezkurra dagoan bere mugarrituan egunez aurkitu legiken txarri bakotxagaitik marai bi ordaintzeko prest egon ezkeru; eta gauzez izan ezkeru, lau marai, txarrien jabe nagusiak eskatu ez arren; eta au, loditzeko ekarri dituanak baitura emonik: aituriko zigor au baitu zituan mendiaren jabearentzat izan daitela. Orrelako txarriak, baiña, esiturik daukan bere soloren baten norbaitek aurkitu ta abeletxeratu baleuz, txarriok loditzeko dakazanak legebarruan dagoalako Erantzulea emon eta erabagitako eta egindako kaltea ordaindu ezkeru, abeletxeratu zituana emotera ta biurtzera beartu daitela, txarrien jabeari kalte ta obari guztiak eta gaiñera txarri bakotxeko eun marai

Titulo treynta y quatro.

à engordar: la qual dicha pena sea para el dueño del tal monte que los prendò. Pero si los tales puercos los hallare alguno en alguna su heredad cerrada, & los encorralare, que dando fiador el tal que trae los puercos à engordar de estar à derecho, y pagar lo juzgado, ò el daño, obligado sea el que los encorralò, de los dar, & alargar luego sopena de todos los daños, & interesse à la parte, y dueño de los tales puercos, y de cien maravedis por cada vn puerco, para aquel que los trae à engordar.

¶ *Ley. VIII. Como se puede entrar y passar por las heredades ajenas.*

OTro si dixeron, que auian de fuero, y establecian por ley, que por quanto en Vizcaya ay mucha copia de heredades cerradas & mojonadas, y muchos entran y passan por tales heredades con intenciõ de no hazer daño ni injuria al dueño. Por ende que ordenaban, y ordenaron, que qualquier persona pueda ser libre para entrar y passar por

qualquier heredad que otro aya, & tenga; y esto por su persona, aunque la tal heredad estè cerrada, ò mojonada: pero si alguno entrare con carro, ò con bestia heredada por heredad agena cerrada, ò mojonada contra la voluntad del dueño, que pague de pena por cada vez cien maravedis, la meytad para el dueño de la tal heredad, & la otra meytad para los reparos de los caminos de aquella comarca, & mas el daño, y el interesse a la parte. Y si alguna persona entrare en heredad agena, y algun daño hiziere; que pague el tal daño doblado: & si el dueño de la heredad (siendo presente) vedare à qualquier persona que no entre por la tal su heredad, y sin embargo dello contra su voluntad entrare (allende de las otras penas establecidas en derecho) pague de pena cien maravedis repartidos segun dicho es.

(?)

Ley.

Ogeitamalaugarren Atala

loditzeko ekarri dituanarentzat ordaindu bearreko zigorpean.

VIII Legea. Besteren soloan zelan sartu eta andik zelan igaro daiteken.

Baita, esan eben: Bizkaia'n solo esitu ta mugarritu asko dagoan ezkerro, solo areetan asko sartu ta andik igaro egiten dirala, jabeari kalterik eta iraiñik egiteko asmorik baga. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, bestek daukan eta berea dauan edozein solotan sartzeko ta andik igaroteko eskua edonork izan daikela; eta au, berenez, aitaturiko solo ori esitua ta mugarritua izan arren; norbait, baiña, burdiagaz edo abere perratuagaz iñoren solo esituan eta mugarrituan jabearen gogoaz bestera sartuko balitz, bakotxean eun marai ordaindu dagizala zigortzat, erdia solo aren jabearentzat eta beste erdia eskualde aretak bidegintzarako, eta kaltea ta obaria, gaiñera, alderdiari ordaindu dagiozala, Eta iñoren soloan iñor sartuko balitz eta kalterik egin.

kaltea bi alako z geituta ordaindu dagiala: eta soloaren jabeak (bertan dagoala) bere solo aretan sartzea iñori debekatuko baleutso, eta, alan da guzti bere, aren gogoaz bestera sartuko balitz (Legean ezarririko zigorrez gain) zigortzat eun marai ordaindu dagizala, esaniko erara banantzeko.

IX Legea. Norbaiten kontra sut-autsezko tirorik jaurtitzen edo jaurtitzeko agintzen dabenen zigorra.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Bizkaitarrik ez daitela Bizkaia'n adiskideren edo arerioaren aurka sut-autsezko tirorik egiten edo jaurtitzen ausartu, ez geldinetan, ez geldinetatik kanpo, onango zigorpean, sut-autsezko tirorik iñori jaurtitzen dautsonak azpikeritsuaren erio-zigorra izan dagiala, tiroz kalterik egin ez arren bere; eta jaurtitzeko agindu dauan Jaun edo aide nagusiak zigor ori berori izan dagiala.

¶ *Ley. IX. La pena de los que tiraren ò mandaren tirar tiro de poluora contra alguna persona.*

OTro si dixeron, que auian de fuero, y establecian por ley, que ningun Vizcayno en Vizcaya sea ofado de facar ni tirar con ningun tiro de poluora contra amigo ni enemigo en tregua ni fuera de tregua: so pena que qualquiera que tirare à otro con tiro de poluora, aya pena de muerte de alebossò, aunque no aya hecho daño con tal tiro; y que essa mesma pena aya el señor, ò pariente mayor que lo mandare tirar.

¶ *Ley. X. Pena de los incendiarios.*

OTro si dixeron, que auian de fuero, y establecian por ley, que ninguno sea ofado en Vizcaya poner fuego à sabiendas à los panes, y mieses del campo, ò casafas para quemar en tregua ni fuera de tregua so pena de muerte de alebossò.

¶ *Ley. XI. Como se ha de poner fuego à las heredades para que no haga daño, y la pena del que lo pusiere.*

OTro si dixeron, que auian de fuero, y establecian por ley, que por quanto algunos ponen fuego y encienden las sierras & pastos, que estan rasos sin arboles por amor de la hierba. Pero acaeçe que el tal fuego, que afsi ponen, sale de las tales sierras à algunos mōtes, ò heredades cercanas, y haze gran daño; y porque los tales, que ponen el tal fuego, sepan en que tiempo & lugar, y de que forma le han de poner. Dixeron que ordenaban, y ordenaron, que pongan el tal fuego en tiempo, y en forma, que no salga de las sierras rallas à los montes poblados, y heredades cerradas, por manera que pueda hazer daño: so pena que si afsi salido el tal fuego en montes, ò heredades hiziere daño alguno, el que pusiere tal fuego (si fuere mayor de catorze años) pague el tal daño doblado à la

Zigorrei ta Kaltei buruz



X Legea. Su-emoleen zigorra.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, garitzei edo soloetako ereñei edo etxeei jakiñaren gainean su emoten iñor ez daitela Bizkaia'n ausartu naiz bake-unetan naiz geldi-unetatik kanpo, azpikeritsuari dagokion erio-zigorpean.

XI Legea. Kalterik ez egiteko soloak zelan erre bear diran, eta kalte egiñez soloan sua egiten dauanaren zigorra.

Baita, esan eben: Zugatzik бага garbi dagozan mendi ta larretan batzuek sua egiten dabela, su au bedarraren onerako iziotu eragiñik. Eta batzuetan, jazo oi danez, sua egiten dan mendietatik urrean dagozan beste mendi ta solo batzuetara joaten dala, kalte aundiak egiñik; eta onan sua egiten dabenek zein alditan eta lekutan eta eratan sua egin daikeen

jakin dagien: Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, mendi soilletatik oianetara ta solo esituetara suak urteten ez dauan aldian eta eran egin dagiela, suak kalterik egin ez dagian, zigor onenpean: Onan urtendako suak mendietan eta soloetan kalterik egingo baleu, su-egilleak (amalau urtez goitikoa izan ezker) kaltea egin jakonari kaltearen bi alakoa eta, gainera, seireun marairen zigorra, ori egiten dauan bakotxean, ordaindu dagiozala, iru zatitatik bat bidegintzarako, bestea salatariarentzat eta irugarrena bete-eragipena egin eban Epaikariarentzat dalarik. Eta amalau urtez beetikoa balitz, eta ordaintzeko ondasunik izan ez (bere Gurasoek eta Nagusiek aginduta egin ebala ziur jakin ezker) zigorra ta kaltea eurok ordaindu dagiezala, ori egin eban mutil edo neskaren esanez eta autor-menez bakarrik jakin arren bere, eta ziur ezin jakin badadi, mutil edo neska a Elizate aretatik urtebeterako erbesteratu daitela: eta Elizate aretako edonork bere

Titulo treynta y quatro.

parte dañada, & mas de penafeycientos marauedis por cada vez, la tercera parte para los reparos de los caminos, y la otra tercia parte para el acusador, y la otra tercia parte para el juez que lo executare. Y si fuere menor de catorze años, & no tuuiere bienes de que pagar (confitando que lo hizo por mandado de sus padres, ò amos) que los tales padres, ò amos paguen la dicha pena & daño, aunque conite solo por dicho, ò confesion del tal moço, ò moça: y si ò pudiere constar, que el tal moço, ò moça sea desterrado de aquella ante Iglesia por vn año: & si qualquiera de aquella ante Iglesia dentro del dicho año de destierro le acogiere en casa, que pague la dicha pena & daño. Y si fuere mayor de la dicha hedad, estè preso en la carcel publica hasta que lo pague, ò le

den cien açotes,
qual el mas ef-
cogiere.

(?)

¶ Ley. XII. En que lugares no se puede poner fuego.

OTro si dixeron, que auian de fuero, y establecian por ley, que por quanto por el poner del tal fuego en las sierras y exidos altos, donde estan cerca arboles y plantios, la experiencia muestra, que en los tales montes saliendo el tal fuego, haze gran daño: por ende por euitar el dicho inconueniente dixeron que ordenaban, y ordenaron, que ninguno fuesse osado poner fuegos en las tales sierras y exidos altos à sabiendas: so pena que el que tal fuego puffiere, aunque no haga otro daño (solo por la ofadia) pague cinco mil marauedis repartidos en la forma contenida en la ley antes desta: y si fuere menor, y tal que no tēga con que pagar la dicha pena, sea desterrado de todo el Condado de Vizcaya por cinco años.

(?)

Ley.

Ogeitamalaugarren Atala

etxean urtebete orren barruan artu badagi, aitaturiko zigorra eta egiñiko kaltea berak ordaindu dagizala. Eta adin orretakoa baiño zaarragoa izan ezkeru, ordaindu arte Erri-Presondegian katigu egon daitela.

XII Legea. Zein lekutan ezin daiteken surik egin.

Baita, esan eben: Goino mendietan eta erri-basoetan sua egin ezkeru eta urrean arboladurik izan, ikusien gainera ikusi izan danez, suak urten eta mendiotan kalte aundiak egiten dituala. Orregaitik, oker au kentzeko, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, onango mendi ta goialdeko erri-basoetan jakinaren gainean surik egiten inor ez daitela ausartu: zigor onenpean, onelan sua egiten dauanak, kalterik ez egiñarren bere (ausardiagaitik bakarrik) bost milla marai ordaindu dagizala, goragoko Legearen arabera banantzeko: eta adin txikitakoa balitz eta zorra zegaz ordaindurik izan ez, Bizkai'ko Konderrri guztitik bost

urtetarako erbesteratua izan daitela.

XIII Legea. Norberaren soloan sua zelan egin daiteken.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, bere iratzari edo otatzari edo soloari su emoteko edonor izan daitela bere eskuko, sua besteren solora edo erriko basoren batera ez igaroteko erara egin ezkeru; zigor onenpean, besteren solora edo erriko basora sua igaroko balitz, aitaturiko zigorra ta kalteak bi alakoz geituta ordaindu dagizala, aurreragoko Legeak dakarren erara banantzeko.

XIV Legea. Besteren zugatzari ez dakiela azalik kendu, eta ori egiten dauanaren zigorra.

Baita, esan eben: Erriko mendietan eta mugarrituetan zugatzak zuritu ta Azala kendu egiten jakelako, Jabeai ta Erriai kalte aundiak etorten jakezala, gero igartu ta galdu egiten dirata. Orregaitik, Foruz ebena

¶ Ley. XIII. Como se ha de poner fuego à heredad propia.

OTro si dixeron que auian de fuero, y establecian por ley, que qualquiera fuesse libre de poner fuego à su elgueral, ò argomal, ò heredad, en tal manera que el tal fuego no pase à otra heredad agena, ni à exido alguno: fopena que si pasare el tal fuego à heredad agena, ò a exido pague las sobre dichas penas y daños doblado repartido en la forma en la ley antes desta declarada

¶ Ley, XIII. Que no se quiten las cortezas à los arboles agenos, y la pena dellos.

OTro si dixeron, que auian de fuero, y establecian por ley, que por quanto por el defollar y quitar la corteza à los arboles en los montes exidos, ò mojonados, recrece gran daño à los tales dueños y pueblos; porque luego se fecan y se pierden. Por ende dixeron que ordenaban, y orde-

naron, que nadie fea osado de defollar, & quitar corteza à robre, ni arbol, en mojonado, que tenga alguno, ni en exido: fopena que qualquiera que defollare de cinco arboles abaxo, pague al dueño el daño doblado, y mas seyscientos marauedis para los reparos de los caminos del Condado; y si defollare de cinco arboles arriba, aya la pena del talador.

¶ Ley, XV. Sobre los taladores de arboles & viñas agenas.

OTro si dixeron, que auian de fuero, y establecian por ley, que qualquier que fuere talador, y despoblador de heredades agenas à sabiendas que muera por ello. Y porque se puede dudar qual se diga despoblador de heredades agenas: dixeron que ordenaban, & ordenaron, & declaraban, y declararon, que aquel fuesse auido por tal despoblador el que cortare deveynte pies de arboles frutales arriba, y los que cortare dende abaxo, seã desterrados de todo el Condado

Zigorrei ta Kaltei buruz

Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, besteren mugarri barruan edo erriko basoan Aretxik edo Zugatzik zuritzen edo Azalik kentzen iñor ez daitela ausartu: zigor onenpean, bost Zugatz baiño gitxiago zuritzen dituanak egindako kaltearen bi alakoa jabeari ordaindu dagiola eta seireun marai Konderriko bideak konpontzeko; eta bost baiño geiago zuritu badagiz, oster, iñauslearen zigorra bereganatu dagiala.

XV Legea. Iñoren zugatzzen eta maastien iñausleez.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, besteren soloetako zugatzak jakiñaren gaiñean iñausi edo soildu egiten dituana, orregaitik il daitela. Eta iñoren soloetako zugatzsoiltzaillea nor dan zalantza izan daiteken ezkerro, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, eta azaltzen ebela, onantxe azaldurik, ogei Igali-zugatz baiño geiago barrenetik ebagiten dituana, iñausle izan daitela, eta gitxiago ebagiten dituanak

Bizkai'ko Konderrri guztitik urte bitarako erbesteratu daitezala eta lurraren jabeari egindako kaltearen lau alakoa ordaindu dagiola eta onango Igali-zugatzak matsondo ta sagarrondo ta gastañondo ta intxaurrondoak izan daitezala, baita jateko frutua emoten dauan edozein Zugatz bere. Baiña iruzurrez ebagi edo iñausi ez baldin badau, iñorena barik berea zalakotan ori egiñik, olakoan, ez dakiola onango zigorrik ezarri, kaltearen lau alakoa ordaindu eragin baiño, Epaikariak bere naierara zigorra ezarririk. Baiña iñoren soloan ebagi edo atara edo iñausi edo zuritu dauana Igali-zugatza izan ez baldin bada, bost zugatz arteraiño kaltearen lau alakoa eta zigorrez seireun marai Bidegintzarako ordaindu dagizala; bost zugatz baiño geiago izan ezkerro, barriz, Konderrri guztitik urte bitarako erbesteratu daitela, jabeari kaltearen lau alakoa ta aita-turiko seireun marai Bidegintzarako ordaindurik; Eta soloren edo beste lekuren baten dagoan Aretx edo Zugatzen bat eragozpide edo nekebide jakolako, Epaikariaren agindurik baga

Titulo treynta y quatro.

dado de Vizcaya por dos años, y pague con el quatro tanto el daño al dueño de la heredad: & los tales arboles frutales se entiendan çepas de viñas, y mançanos, y castaños, y nogales, ò otro arbol que lleuare fruta de mantenimiento: pero sinò lo cortare, ò talare con dolo, saluo pensando que es fuyo, y no ageno; que en tal caso no aya la dicha pena, saluo que pague el daño con el quatro tanto, y la pena sea arbitraria, qual le pareciere al juez. Pero si lo que así cortare en heredad agena, ò arrancare, ò talare, ò roçare, no fuere de los dichos arboles frutales, saluo robres, ò otros arboles no frutales, que pague el daño con el quatro tanto hasta cinco pies al dueño de la heredad, y pague seysçientos marauedis de pena para los reparos de los caminos: y de cinco pies arriba sea desterrado de todo el Condado por dos años, y pague el daño con el quatro tanto al dueño, y los dichos seysçientos marauedis para los caminos: y si cortare algun pie de robre, ò arbol que estuviere sobre alguna heredad,

ò en otro lugar por impedimento, ò enojo que le haze sin autoridad de juez, ò licencia de la parte, que pague al dueño el daño con el quatro tanto, y sea desterrado por vn año: pero sinò cortare robre, ò otro arbol por pie, saluo lo rozare por rama, ò esquilmare que pague al dueño del tal robre el daño, y mas cien marauedis de cada rama fasta diez ramas en cada robre, la meytad para la parte, y la otra meytad para los reparos de los caminos del Condado.

¶ *Ley. XVI En que casos por las cortas no se puede proceder criminalmente.*

OTro si dixeron, que auian de fuero, y establecian por ley, que por quanto socolor de las cortas y talas de mōtes y frutales fuo declaradas muchos denuncian criminalmente sobre otras cortas y roças de poca cantidad & importancia, así por argomas, y varas, y piertigas, y por lo seco que se corta, y se hazen processos grandes, y se fatigã vnos à otros; y por euitar lo tal dixeron,

Ogeitamalaugarren Atala

eta alderdiaren baimenik baga ebagiko baleu, kaltearen lau alakoa jabeari ordaindu dagiola, urte beterrako erbestera bialdua izanik: Aretxik edo beste Zugatzik barrenetik ebagi baga adarrak ebagi edo iñausi baditu, ostera, Aretx orren jabeari egindako kaltea ordaindu dagiola, eta gaiñera adar bakoitzeko eun marai Aretx bakoitzean amar adarretaraiño, erdia jabearentzat eta beste erdia Konderriko Bidegintzarako dala.

XVI Legea. Ebaiketagaitik zein kasutan ezin daitekenez zigor-auziz jokatu.

Baita, esan eben: Gorago aitatu diran basoen eta Igali zugatzen ebagite ta iñaustearen aitzakiz, askok beste txikiagoko ebagite eta garrantzirik bagako urratzeagaitik bere zigor-auzitaratu egiten dabela, esaterako, naiz otak eta agak eta makillak ebagi diralako naiz igarturikoa urratu dalako, eta Auzibide aundiak izaten dirala, batzuek eta bestetzuek neke arturik; eta onangoak uxatzeko, Foruz ebena Legetzat

ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, orrelako ebagite ta urratze ta atarateak egin arren, ezin daitekela zigor-auziz salakuntzarik egin, eta Epaikariek ez dagiela orretarako salakuntzarik onartu (indarrez egiñazo ezik), erri ta diru-auzia eskatu baiño.

XVII Legea. Baimenik baga mugarriak kentzen eta jarten dituenen zigorra.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, iñoren soloan edo besterenaren eta norberaren tartean bere eskuz eta Epaikariaren baimenik baga mugarriak jarri edo kendu egiten dauan edonor seireun marairen zigorpean jausi daitela, mugarri bakoitzagaitik neke ori leenengoz bereganaturik, eta bigarrenez, alako bi ordaindu dagiala, mugarria noren kaltetan kendu edo ipiñi eban eta arexentzat erdia eta bestea Konderriko bideak konpontzeko dala, eta Bizkai'tik erbesteratua izan daitela, eta irugarrenez, il daitela.

ron, que ordenaban, & ordenaron, que por corta ni roça ni arrancar de lo semejante nadie pueda denunciar criminalmente, ni el juez reciba denunciacion (si en ello no interuiene fuerça) saluo q̄ lo pida ciuil y pecuniariamēte.

¶ *Ley. XVII. Pena de los que arrancan, ò ponen mojones sin licencia.*

OTro si dixerón, que auian de fuero, y establecian por ley, que qualquier que pusiere, ò arrancare mojones en heredad agena, ò entre la agena & la propria por su propria autoridad sin mandado del juez, ò licencia de la parte, caya & incurra en pena de seyscientos maravedis por cada mojon por la primera vez, & por la segunda vez pague doblado, la meytad sea para el dueño de la heredad, en cuyo perjuizio puso, ò arrancò, y la otra meytad para los reparos de los caminos del Condado; y sea desterrado por vn año de Vizcaya, y por la tercera vez muera por ello.

¶ *Ley. XVIII. Pena de los que entran por fuerça en heredad que otro posee.*

OTro si dixerón, que auian de fuero, y establecian por ley, que qualquier que entrare en heredad agena por fuerça del dueño, ò poseedor que otro tenga, y posea por año y dia en haz y taz del tal forçador; que por la tal ofadia (allende de las otras penas establecidas por fuero y derecho) pague, & restituya con el doblo la tal heredad al tal poseedor, y allende dello pierda qualquier derecho y acion que ende auia, ò pretendia.

¶ *Ley. XIX. Pena de los que quebrantan las herrerias, ò molinos, ò calzes, ò anteparas.*

OTro si dixerón, que auian de fuero, y establecian por ley, que por quanto en auer herrerias en Vizcaya redunda à su Alteza gran seruicio, y a la tierra gran vtilidad y prouechos, & a la causa conuiene que sean defendidas, & guarda-

Zigorrei ta Kaltei buruz

XVIII Legea. Bestek daukan soloan indarrez sartzen diranen zigorra.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, urtebete ta egun batez bortxariaren agirian norbaitek bere menpean daukan soloan jabeari indar eginda inñor sar baledi, onango ausardiagaitik (Foruz eta Legez ezarririko beste zigorrez gain) soloak balio dauanaren bi alakoa soloa daukanari ordaindu dagiola, eta, gaiñera, an eukan eskubidea ta egin-asmo eban eginbidea gal dagiala.

XIX Legea. Ola edo errota edo urbidea edo andaparra apurtzen dabenen zigorra.

Baita, esan eben: Bizkaia'n olak dagozako Jaun Aundiari on aundia datorkiola ta erriari onura ta mesede aundia, eta onegaitik gaizkilleengandik babestu ta jagon egin bear dirala, guztiak edo geienak jendartetik urrun eta leku baztarretan dagozeta. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben:

Agintzen ebela, onantxe agindurik, Olarik edo Errotarik edo urbiderik edo andapararik jakiñaren gainean eta bere eskubidez apurtu dagiana edo Ausporik ausi edo zulotu dagiana, orregaitik il daitela, eta kaltea bitan geiturik ordaindu dagiola jabeari.

XX Legea. Inñoren upela ustuten dauanaren zigorra, eta zein kasutan lapurreta izango dan.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, norbaitek besteren upela itzuliz, ebagiz edo zulatuz, an egoan sagardau guztia edo geiena gal badaidi, orrelakoa bortxariaren zigorpean jausi daitela, eta alderdiari kaltea lautan geitua ordaindu dagiola; eta ori, ostuteko asmoz egin ez baldin badau. Ostuteko asmoz egin ezkerro, ostera, lapurraren zigorra ezarri dakiola, jabeari kaltearen bi alakoa ordaindurik.



Titulo treynta y quatro.

das de los mal hechores, y porque todas, ò las mas estan apartadas, y en despoblado. Por ende dixeron que ordenaban, y ordenarõ, que qualquier que quebrantare ferreria, ò molienda, ò calzes, ò anteparas dellas, ò rompiere, ò foradare barquines à fabiendas por su propria autoridad, muera por ello, y pague el daño doblado al dueño.

¶ *Ley. XX. Pena de el que derramare cuba agena, y en que caso ser à hurto.*

OTro si dixeron, que auian de fuero, y establecian por ley, que qualquier que a sabiendas trastornare, ò vertiere sidra, que estuuiere en cuba agena cortandola, ò foradandola, de tal manera que se vierta toda, ò la mayor parte, caya & incurra en pena de forçador, y pague el daño doblado a la parte; y esto, sinò lo hiziere con intencion de la llevar furtada: ca si con intencion de la hurtar lo hiziere, aya la pena del ladron y pague el daño doblado a la parte.

¶ *Ley. XXI. La probança que se tiene por bastante contra los que hazen los daños contenidos en las leyes deste titulo en los campos y despoblados.*

OTro si dixeron, que auian de fuero, y establecian por ley, que por quanto en los montes y tierras (do semejantes cortas y talas se hazen, y con semejante fuego se encienden y en la dicha forma los arboles se desuellan, y se les quita la corteza) son los tales lugares montañas y despoblados, do con dificultad se podrian auer testigos de vista: y a la causa por falta de probança quedan los dichos delitos y maleficios sin punir, & castigar, y los dueños de los montes & heredades danificados. Por ende dixeron que ordenaban, y ordenaron, que semejantes maleficios, y daños hechos en los tales montes, & lugares apartados se puedan probar (aunque no aya testigos de vista) por presunciones violentas, & indicios con fama publica;

Ogeitamalaugarren Atala

XXI Legea. Atal onetako legeetan aitatzen diran soloetako eta bakar-lekuetako kalteen naiko egiztagarri izango diranak.

Baita, esan eben: (Orrelako ebagiteak egin eta su emon eta era berean Zugatzak zuritu ta azala kendu) egiten diran mendiak eta basoak Bakar-leku izan oi dirala, eta ikustez Lekuko izan zeitekezanak ekartea gatx izaten dala; eta onango egiztabiderik ez dalako, lege-austeak eta okerrak zigortu baga eta ordaiña jaso baga gelditzen dirala, mendion eta soloon jabeei kalte aundiak etorririk. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, mendietan eta Bakar-lekuetan egin oi diran onango okerrak eta kalteak (ikustez Lekuko danik ez izan arren), errian zabal dabizan ustez eta aztarrenez egiztatu daitekezala, eta lege-auslea ustez salatu egiten dabien eretxiok eta aztarrenok izan badaitez, lege-auslea gaitzetsi daitekela, gorago aitaturiko zigorren irabaztun egiñik eta zigo-

rrok bete-eragiñik, erbeste-ratze eta diru-zigorra besterik ezarten ez danean: Konderritik at erbesteratu bear au urtebeterako baiño ez bedi izan, diru-zigorra, barriz, iru milla maraiz goitiko bere ez, alderdiari ordaindu bearreko kalteaz gainera.

XXII Legea. Esker txarreko doadunen zigorra.


Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, edozein Seme edo ondorengo edo Senide edo familiaz besteko dana Aitak edo Amak edo bestek jabegei egin ezkerro, edo-ta ondasun guztiak edo geienak doan artu ezkerro, bere Aitari edo Amari edo doaiz edo ezkon-sariz emon eutsanari eskuak sumiñez ezarriko baleutsoz edo onango beste esker txarreko egiñik egingo baleu, orrelako egite gaiztoagaitik ondarea kentzeko edo janaria ukatu edo doaiz edo ezkon-sariz emona ezeztatzeko Legeak agindu ezkerro, ori ziurkiro jakin baledi eta onelan iraindu ta mindu

blica: & que por las tales prefunciones, y indicios que probablemente se presumã contra el delinquente, y se pueda proceder à le condenar al tal delinquente en las penas suso declaradas, y execucion dellas: conque no excedan de destierro, & pena pecuniaria: el qual destierro no exceda de vn año de fuera del Cōdado, y la pena pecuniaria, de tres mil maravedis allende del daño de la parte.

¶ *Ley. XXII. Pena de los donatarios ingratos.*

OTro si dixeron, que auian de fuero, y establecian por ley, que si qualquier hijo, ò decendiente, ò pariente, ò estraño à quien padre, ò madre, ò otro alguno le aya hecho heredero, ò donado todos sus bienes ò la mayor parte dellos, pu-


fiere manos ayradas en el padre, ò en la madre, ò en aquel quien le donò, ò dotò lo suyo, ò cometiere otras causas de ingratitud, por las quales el derecho manda desheredar, ò denegar alimentos, ò reuocar la tal dote, ò donacion; que conssando desto, y quexandose dello el tal injuriado, y ofendido dentro de año y dia, pierda el tal fijo ò decendiente, pariente, ò donatario la tal herencia, ò bienes, que asì le fueron dotados, y donados: conque el tal ofendido no le aya remitido, ò perdonado la tal ofensa, ò injuria al injuriador, asì como comiendo, y bebiendo con el en vna mesa, ò hablándole amigablemente, ò por otros semejantes actos, que induzen remission y perdón, ò disimulacion: y que los tales bienes se baeluã al tal donador ofendido, ò injuriado.



Zigorrei ta Kaltei buruz

izana urtebete ta egun baten buruan kexaz baletor, arelako Semeak edo ondorengoak, senideak edo doadunak arturiko ondarea edo doaiz edo ezkon-sariz bereganaturiko ondasunak gal dagizala: min artzailleak irain egilleari orrelako miña edo iraiña barkatzen ez


dautsan bitartean, mai berean jan-edan edo adiskidekiro berba egin edo onango beste ezaugarri baten bidez askespena ta barkamena ta estalpena agerturik; eta orrelako ondasunak min artutako edo iraindutako doan emoleari biur dakiozala.



Titulo treynta y cinco.

TITVLO TREYNTA Y CINCO de los juegos y pecados publicos.

¶ Ley. I. Que sobre los juegos no se haga pesquisa passados dos meses no auiedo parte.



Tro si dixeron, que en razon de las penas de juego, tenian vna prouision, y merced de su Magestad, la qual auian guardado y usado, y que adelante ordenaban, y ordenaron, y establecian que valiesse por ley: el tenor de la qual dicha prouision Real es este que se sigue.

¶ Ley. II. Sobre lo mismo.

Carta Real.



On Fernando, y doña Ysabel por la gracia de Dios Rey, & Reyna de Castilla, de Leon, de Aragon, de Sicilia, de Granada, de Toledo, de Valencia, de Galizia, de Mallorcas, de Seuilla, de Cerdeña, de Cordoua, de

Corçega, de Murcia, de Jaen, de los Algarues de Algezira, de Gibraltar, de las Illas de Canaria, Condes de Barcelona, y Señores de Vizcaya y de Molina, Duques de Atenas, y de Neopatria, Condes de Ruyfellon, y de Cerdania, Marqueses de Oristan, y de Gociano. A vos el que es o fuere nuestro Corregidor, o juez de residencia del nuestro noble y leal Condado y Señorío de Vizcaya, o a vuestro alcalde en el dicho oficio, y acada vno de vos, salud y gracia. Sepades que Iuan Lopez de Escoriaça Diputado del dicho nuestro Condado en nombre de esse dicho Condado y vezinos del nos hizo relacion por su petition, que en el nuestro Cõsejo fue presentada; deziendo que el presentamero con mandamiẽto del lugar teniente de vos el dicho nuestro Corregidor diz q̃ anda faziendo pesquisa general en cosas vedadas, segũ las leyes del fuero desse dicho Cõdado y Señorío de Vizcaya y pri-

Ogeitamabosgarren Atala



OGEITAMABOSGARREN ATALA, ERRI-



ko jokoez eta pekatuez.

I Legea. Illabete bi igaro ezkerro, jokoei buruz ez daitela billakuntzarik egin, alderdiaren salakuntzarik izan ezik.



aita, esan eben: Jokoei dagokiezan zigorrei buruz Jaun Aundiaren Erabagi ta Mesede bat ebela, usarioz orain arte gorde izan ebena, eta aurrerantzean Legetzat ezarri eitela agintzen ebela, onantxe agindurik: Errege-erabagi au urrengo datorren auxedo zu.

II Legea. Beroni buruz, Errege-eskutitza.



Don Fernando'k eta Doña Isabele'ek, Jainkoaren graziaz, Kastilla'ko, Leon'go, Aragon'go, Sizilia'ko, Granada'ko, Toledo'ko, Balentzia'ko, Galizia'ko, Mallorkasetako, Sebilla'ko, Zerdania'ko, Kordoba'ko, Korzeaga'ko, Murzia'ko, Jaen'go,

Algarbes'ko, Aljeziras'ko, Jibraltar'go, Kanaria Ugarteetako Erregek eta Erregiñak, Barzelona'ko Kondeek, Bizkai'ko ta Molina'ko Jau-nak eta Anderak, Atenas eta Neopatria'ko Dukeek, Ruisellon eta Zerdania'ko Kondeek, Oristan eta Goziano'ko Markesek. Zuri, Noble ta Leial dan gure Konderri ta Jaurerriko Korrejidore edo Zuribideko Epaikari zaran edo izango zaran orri, edo kargu orretan zure Alkate danari, eta zuotariko bako-txari, Osasuna ta Grazia. Jakin egizue, Eskoriatza'ko Joan Lopez'ek, aitaturiko gure Konderriko Aldunak, Konderri beraren eta bertako Erritarren izenean, gure Batzarrean aurkeztutako Eskabidez, aipamen egin euskula, esanez: Prestame-ruak, gure Korrejidore zaran orren Leku-Ordez-kari lez eta zure Aginduz, Bizkai'ko Konderri ta Jaurerriko Foruek eta Lege bereziek debekaturik daukezan gauza guztien billakuntza egiten ei diardu, batez bere, diru jakiña, edozein modutan dala,

De los juegos y pecados publicos. 104

y priuilegios della, en especial preguntando que digan quien, y quales personas han jugado dinero seco en qualquier manera, à lo qual si por nos le fuessè dado lugar, sería causa de se destruyr la tierra, y q̄ si así passasse que el dicho nuestro Condado, y vezinos del recibiriã en ello mucho agrauio, y daño, y nos suplico y pidió por merced sobre ello les mandassèmos proueer, & remediar con justicia, mãdando q̄ no se fizieffen las tales pesquisas generales sobre los dichos juegos, ò como la nuestra merced fuessè: lo qual visto en el nuestro Cõsejo fue acordado que debiamos mandar dar esta nuestra carta para vos en la dicha razón, y nos tuuimoslo por biẽ. Por la qual vos mandamos q̄ de vuestro officio sin pedimiento de parte sobre los dichos juegos no fagays, ni cõsintays hazer pesquisa en esse dicho Condado de mas tiempo de lo passado de dos meses, ni de lo de mas tiempo pidays, ni demandeys à los vezinos de esse dicho Condado de Vizcaya de vuestro officio sin pedimiento de parte pena ni achaque, ni sobre ello les fa-

gays costas ni otros daños, & no fagades ende al por alguna manera, so pena de la nuestra merced, & de diez mil maruedis para la nuestra camara: y de mas mandamos al home que vos esta nuestra carta mostrare que vos emplaze q̄ parezcades ante nos en la nuestra corte, do quier que nos seamos del dia q̄ vos emplazare hasta quinze dias primeros seguites so la dicha pena: lo la qual mandamos a qualquier escribano publico q̄ para esto fuere llamado que dè ende al que vos la mostrare testimonio signado con su signo, porque nos sepamos como se cumple nuestro mandado. Dada en la villa de Valladolid à diez y nueue dias del mes de Hebrero año del nacimiento de nuestro Saluador Iesu Christo de mil & quinientos & vn años. El Conde de Cabra, don Diego Fernandez de Cordoua. Conde de Cabra por virtud de los poderes q̄ tiene del Rey, & de la Reyna nuestros señores la mãdò dar con acuerdo del Consejo de sus Altezas, yo Christobal de Vitoria la hize escribir. Ioanes Doct̄or. Franciscus Licẽ-

Erriko Jokoez eta Pekatuez

nork eta nortzuk jokatu daben esateko itaunka, eta guk au onartuko bagendu, Erriarentzat ondamendia etorriko litzatekela eta, onan jazo ezkerro, gure Konderri orrek eta bertoko Erritarrek bidebaga ta kalte aundiak izango leukeezala, eta arazo oni buruz erabagi Zuzen bat urtenbidetzat artu gengiala, erregu egiñik, Mesedez eskatu euskun, jokook dirala-ta, guztien billakuntzarik ez daitela egin agindurik, edo Geuk Mesedez geritxona egiñik. Au gure Batzarrean aztertuz gero, arazo oni buruz Zeuretzako Ezkutitz au egiñazo gengiala ebatzi zan eta Guk onartu egin genduan. Orregaitik, illabete bi igaro ezkerro, ez dagizula alderdiak eskatu baga aitaturiko jokooi buruz zure Egintzaz Konderrian billakuntzarik egin zuri agintzen dautsut, ezta orretarako baimenik emon bere, eta geroago egin dan jokoaz ez dagizula Konderriko Erritarrentzat zeure Egintzaz eta alderdia tarteko izan baga zigorrik eskatu, ez aiko-maikorik atara, ezta orrelakoetan eralketarik ez beste kalterik arei leporatu eragin bere, eta oni ez

